ataramiñe'10

EUSKAL ERREPRESALIATU POLITIKOEN LITERATURA KOADERNOAK

AZALAREN IRUDIAREN EGILEA
Joseba Galarraga Arrona

ISBN: 978-84-93617-3-8
Lege gordailua
Depósito legal
Dépot légal
NA-3171-2010

ataramiñe 2010

Aurkibidea

Hitzaurrea

Jon Etxeandia gazterik hasi zen idazten. Borrokan ere gazterik hasi zen. Hogeita bat urte zituela, 1983an, espainiar Poliziak atxilotu zuenean, poemak kendu zizkion, kendu uste zion askatasunarekin batera. Modu bikainean gogoratuko zuen Jonek lapurreta hura: “Ene poemak/ poliziak kendu zizkidanean/ komisarioak esan zuen/ el cuaderno de las chorradas/ desartikulaturik zegoela”. Eta guk –eta Jonen idazlanak irakurri dituen edonor, haren ibilbidearen berri dakien edonor bat etorriko da gurekin– pentsatu izan dugunez, eskerrak buruan “txorakeria” asko gorde zituen. Izan ere, “Kartzelako lanak” eta beste idazlan batzuk ez ezik, Ataramiñe ere inongo poliziak kendu ezin izan zizkion “txorakerietakoa” duzu, irakurle.

Idazten gazterik hasi eta gazterik heldu zion zapalduen aldeko borrokari, edo alderantziz. Gazte hasi behar zuen, bere bizitza laburrean oso lanpetuta egongo zen eta. Hala ikusi izan dugu beti, Estatu espainoleko kartzela zuloetan bezala kalean ere. Hain lanpetuta non nekez hartzen zuen bere

buruaz pentsatzeko astirik. “Presaka gabiltza/ eta bitartean/ buruari galdezka ze nolako poesia/ egin behar den une hauetan/ hiztegirik begiratzeke/ idatzi eta irakurtzeko modukoa?”. Haren kezka, egoerarik latzenean ere, lagunak ziren, barrukoak zein kalekoak. Herrerako bisita egunetan haren irribarreak ezin zuen bere begirada biziak adierazten zuena ezkutatu.

Injustiziak eta larderiak kezkatzen zuten, baina kezkatu ez ezik, haien aurkako borrokak bere egiten zituen, handiak zein txikiak, harria zein hitza eskatzen dutenak, eta arma bakar laztana behar dutenak. Sumatu genion gizon lanpetuaren irudi hori ez zen irudi hutsa, ordea, eta horren jakitun, hobeto ulertuko dira kartzelatik atera ondorengo elkarrizketa batean esan zituen hitzok:

“Hortik, makinatik, igaro izana, hori ba, 30 urteko zigorra, imajinatu ere ez duzu egiten, eta hara, apurka egunak badoaz, buruz kokatuz zoaz, honi zentzu bat ematen, eta buelta ematea lortzen duzu eta azkenean bazatoz eta badiozu: atera gara eta hemen gara, ibilian jarraitzeko, geure ekarpena egiten jarraitzeko, baina duintasunetik”.

Duintasuna. Eta hitz potolo hori esateko lagun aproposa. Entzun edo irakurtzen dugun gehienetan hitz erretorikoa izaten da; horrenbestez, debaluazio horren ondorioz, Jon Etxeandiaren ahotan arrotz eman lezake, duintasuna ez da-eta betaurrekoak kentzeko modua, edo hilean behin afari bat antolatzen duen benefizentzia klub bateko bazkide izatea. Bizitza osoan duintasuna ordutegirik gabeko lanbide izan duenarentzat astuna behar du izan. Dena kendu diotenak badaki ezin diotela ezer kendu, eta biluztasun horretan duintasuna berokirik preziatuena da. Eta Jonek ez zuen behin ere erantzi. “Kartzelako patioan jaiotako/ landare bakartiek/ udaberria digute imajinarazi”.

Bere ekarpena egin zuen, egin zuenez, kartzelako urte luzeetan eta kalekoetan. Euskara, literatura, kultura, errepresioaren kontrako borroka, gizarte gaiak… eta, egia esateko, bere buruaz arduratzeko denbora pixka bat gehiago hartu beharko ez ote zukeen zalantza dugu.

Ataramiñe hau Jon Etxeandiaren parte-hartzerik gabeko lehen koadernoa dugu. Eta Jonena ez da edozelako parte-hartzea izan. Nolanahi ere, aurreko aleak bezala hau ere hari zor diogu hein handian. Editore lanetan sartu zenean, bazekien ez zela inongo negoziotan sartu. Izan ere, Ataramiñe ez da inoren poltsikoa gizentzeko bide aproposa, baten batzuen gogoa bete nahi lukeen arren. Eta, paradoxa paradoxaren gainean, ekoizpen literario gutxi bide dira munduan Ataramiñekoak bezain askeak. Aurreiritzietatik aske, zentsuratik aske… eta merkatutik aske. Horixe da literatura koaderno hauen balio nagusia, literatura, artea ezeren mendeko ez izatea. Errepresio guneetatik, erbeste urrunetik ihes egin eta testigantza, maitasuna, olgeta edo ametsa gai, merkatuaren eskakizunei muzin eginda, literatura "garbiaren" zaindari faltsuen kritika interesdunen gainetik, hitz garbia, iraultzaren zerbitzuan, maitasunaren kantari zein egunerokotasunari begiratzeko modu zorrotz edo/eta ironikoa. Esan genezake Ataramiñe Jonen ibilbidearen ispilu dela.

Jon Etxeandia ez dago gure artean, eta aurtengo alean Jonen falta ahalik eta gutxien nabaritzea da gure konpromisoa. Ez da erronka makala baina, Jon gogoan dugula, negarrari eman barik, gure omenaldirik onena lanari ekitea izan litekeela uste dugu. Omenaldi xumea, jakina, bestela ez litzateke-eta haren gustukoa izango.

Lerrook bukatzeko, zer modu hobe haren hitzak ekarrita baino? Hona, bada, haren agurra, baina ez azken agurra, beraren irribarrea gogoan dugun artean behintzat:

"Besterik ez, aberkide maiteok. Preso guzti eta bakoitzari ene irribarre zintzoa eta besarkadarik beroena bidali nahi nizkizueke azken ziegaraino heltzeko asmoz, zuena beti izango den marinel ijito abertzale honen partetik, osasuna eta askatasuna".

Eñaut Aiartzaguena Bravo
1988
Iurreta

2009an atxilotua.

C.P. Madrid IV (Navalcarnero)
Carretera N.5, Km. 28
28.600 Navalcarnero
Madrid

Denboraren ur tantak

Hitz bat gorriz margotu nahiak
begiak itxi
eta ilusiozko negar malkoak
dastatzeraino narama

Oroitzapenetako irriek
ernetako hasperenek
garrasi mutu bat
askatzeraino
bultzatu naute.

Maitatua zen lanbroa
kedar beltzek ordezkatu ddute,
iazko udaberrian ernetako
kimu orlegiak
gaueko burniekin lotuz.

Desertu gorrian eroritako
ur tanta ordea
ez du ondar idorrak xurgatzen
eta lurrun bihurturik,
berriz itxasora erori arteko
erlojuaren joanari itxoiten dio.

Batzutan,
Hormigoizko espaloi ertzetan ere
loreak jaioten dira,
eta petalo bat eskatu
zeruko ur lurrinduan askatu
eta alferregi dabilen orratz lodiari
putz egiozue.

Ziur egon,
egun hautako batean,
eroriko den zeru zati honek
begizulo guztiak
garbituko dituela,
eta garrazi mutu hau
gorriz margotuko duela.

Navalcarnero 2009-12-10

Esperantzan...

Denboraren joanari
gailendu zaion
erloju orratz geldian
lotu zaizkit zangoak.
Arima
geroko ametsen ilusioz
hegaldatzen den artean.
Erantzunen baraurik
hormigoiaren gosean
gal ninteke.
Badauzkat ordea
esperantzan hasitako lorerik
askatasunaren argiari
usaina hartzeko!

Navalcarnero 2010eko Irailak 19

Poemak

Imajina ezazu
neguko oskorri gorri bat,
ororen sortalde
eta sartalde dena
argia ilunarekin
nahasten dena,
begiak itsutuz,
imajina ezazu….
Norantz denetako haizeen zurrunbiloa,
orbela izarretan dantzatuz.,
imajina ezazu.
Imajina ezazu,
neguko oskorri gorri bat
eta hau amilduko da,
distantzia..

Zenbat dira pausuak
oroitzapen batek
eman ditzakeenak.
Hainbat, egin ez denaren damuak
itzul ditzakeenak.
espiralen erreinuan
errefuxiatu delarik

Arrotz dena
ez da ahaleginetan galtzen
ametsen galeran,
bidegurutzeak behartzen,
erbesteko paramo izoztuetan.
Hodeiak bahitzen ditu
deserrian.
Sasien azpian bizitzera
kondenatzeko.
Baina lanbroa
gardena da askotan
itsu uste dutenarentzat.

Besarkada amiltsuen
berotasuna naiz,
gaua jasateko
itxaropena naiz,
aberri zahar baten
zilbor hestea naiz.
Kartzelara sartu zen
eskutitz hura naiz.

Hau ez da
mendekuaren aberria baino,
giza hatsa ito nahi duten
atzaparkadena,
inoiz aseko ez duten goseaz.
Hau ez da
itzalaren aberria baino,
ihes egiten du argiak izuz,
zuek,
gure baitan pizten duzuenak salbu.

Poesia ez da
Arimaren baitara,
boligrafo bat dantzaraztea baino
ez dago ordea
ezer traszendenteagorik.

Distantziak
lur idorrera
behartzen du hazia
petalorik gabeko lorea
erne asmotan.
Distantziak
sustraiak usteltzen ditu ,
ametsak
betirako xerkara
kondenatu nahian.
Distantziak
ibiltzearen xedea
biluzten du.
Pausuak
ematera lotuaz.
…. herri arnas hatsean
errotu zen ordea
gure ibiltzearen hazia.

Zenbateraino
balio du poesiak
hustua, gehiago husteko?
Zenbateraino
dira gai metaforak
berea, jabeari itzultzeko?
Zenbateraino
behar nituzke hitzak
arima bat jantziz biluzteko?
Nahi nituzke
guztiak probestu
erreprimituen kartzelako
giltza asmatzeko,
nire ziegako
sarraila herdoildutik
zure irribarrea ikusten baitut.

Zer da hitz bat
basamorturen erdian
oihukatua dena?
Oroitzapenetan ereindako
ametsen baluartea,
etorkizun hurbilean
erneko den errealitatea.

Egunsentian jaio den
lehen haize ufadak
azken amets intimoenak
gauzatu dizkit
goizeko begirada lausotuan.
Esku luzatuan
atzamar puntak
laztandu dizkit
utopia honen
berotasun umelak.
Baina ukabil itxitik
ihes egiten du haizeak,
eta berriz itxi dira
burdin haga zurrunak
ihesi doan
hasperenaren atzetik

Nekeak bultzatu nau
hitzean
hostatu hartzera.
Askatasunaren aberrian
gainezka egin dit ezerezak.
Eta arima askatu dut
paperezko hegazkin batean,
errealitatetik atseden har dezan
Segundu bakar batzuez.

Urrats bat noraezean
beste zazpi
sasien gainetik
ematen ditugun aldeko.
urrats bat eskaileretan
beste zazpi
izarretara
ematen ditugun aldeko.
Urrats bat barrenera
beste zazpi
barnerago
ematen ditugun aldeko
Urrats bat hertsitasunera
beste zazpi
elkartasunera
ematen ditugun aldiko.
Egunak
nekez argituko ditu
itzalpean denaren begiak.
Gauk ordea,
dena elkartzen du maitekor,
geroko ametsen utopian.

2010eko maiatza
Navalcarnero

Ibon Meñika Orue-Etxebarria
1977
Zamudio

Espetxealdiak: 2001eko martxoaren 6tik 2001eko abenduaren 27ra; 2006ko apirilaren 18tik 2006ko irailaren 14ra; 2007ko otsailaren 4tik aurrera.

C.P. Curtis (Teixeiro)
Carretera de Paradela s/n
15.310 Curtis
A Coruña
(km. 540 A-6 Salida N-634 Santiago)

Marmotaren eguna

Hilak 1. Egutegiari orrialde bat kendu diot; hau bai ariketa osasuntsua, dedio! Aldiz, maratoi berri baten abiapuntua ere bada gaurko eguna. Izan ere, hilabete baten bukaera eta beste baten hasierarekin ez da egun bat soilik gehitzen; hogeita hamar egunez luzatuko den aldaparen lehen urratsa bilakatu zaigu aspaldion: datorren hilabeteko aurrez-aurrekoen baimena eskatzeko lehen harria.

Idatzi dut eskaera orria; hurkoekin adosturiko bi egunak polito-polito izkiriatu ditut, garden, garbi, ulerkor. Aitzakiarik ez ematearren, ene letra zatarrarekin idatzi bako hizki bakarrak, beharbada. Hieroglifiko izaerarik ez duten nire lerro apurrak, apika. "Non ikasi egiten den non idatzi egiten den"[1], horixe baita kartzela.

Hilak 13. Aurretik patxadatsu eta pazientzia handiz buruturiko ibilbide osoaren ondoren, heldu da etxekoekin bi orduz egoteko egun seinalatua. Egutegiari gainbegiratu azkarra bota diot ziegatik atera aurretik eta, igandeko kolore gorritxoak bezperako eguna demokratikoki okupatu duela jabetzen naiz. Gurean jai eguna, komunikazio eguna delako eta ez kristauek madarikaturiko edozein.

Bereziak dira komunikazio baten aurreko uneak. Artega nago, "non kilometroak non mehatxuak non noiz", ditugulako eta, inoiz izan beharko ez liratekeen bidaiariak ikusi eta ondo daudela jabetu arte, ezinegona gailentzen zaidalako. Estu, minutu guztiak topera baliatu nahi ditudalako, nahiz eta gogo honek *tigrera* mila aldiz joanaraziko nauen, prostata arazoak ditudala sinesteraino. Urduri, gauza anitz entzun eta are gehiago esan nahi ditudalako, eta ekuazio hori sostengagarria bihurtzeko, malabarista azaldu beharrean nagoelako... eta noski, tartean, hitz egin gabeko uneak eraiki behar ditugulako. Kuraia musika taldeak esango lukeen gisan, "hau guztia eta askoz gehiago guretzako", 120 minutu justuetan.

---

[1] Kurtsiban dauden esaldiak Koldo Izagirreren "Balizko erroten erresuma" olerki bildumatik (Susa, 1989) hartuak dira. "Han" olerkitik ateratakoak dira gehienak.

Komunikazioa hasi beharko genukeen ordua heldu, baina ni okerreko lekuan nago: hau ez da 4x4-ko gela aurrefabrikatu horietako bat, ez da inon ageri inork ezagutzen ez duen koadro kubistaren baten kopiaren-kopiaren-kopiaren kopia hura, ez da oherik, ez eta auskalo nork eta zertarako erabilitako izara likitsik. Oraindik orain, moduluan bainago.

Gatibu dagoen arnasa hartu, bota eta erlojuari ahalik eta gutxien begiratzen saiatu naiz. Txakurtegira hurbildu eta itaun protokolarioa egin ostean, uluka, "oraindik ez digute komunikazioetatik deitu" jaso dut erantzun gisa. Ezin gehiagorik espero. Etengabe errepikatzen diren galdera-erantzunak dira honakoak, eta, bi solaskideok besteak zer esango duen jakin arren, esaten segitzen ditugunak. Kuriosoak, ekosistema txiki honetan sortzen diren natur legeak.

Ordu erdi pasa da dagoeneko eta hasieratik jakin nezakeen hori, muturrean berretsi zait. Eskuzko miaketa madarikatuak direla eta, aurrez-aurrekoa lapurtu digute. Aireari eman beharko dizkiogu besarkadak berriro ere. Lehen, aurrez-aurrekotik aurrez-aurrekora bizi ginen, "non ahantzi egiten den non ahantzi ezin den" honetan. Aurrez-aurrekoa eginda, hurrengoa noiz etorriko geratzen ginen... Garai batetik hona, hori amaitu da. Egutegiak beste itxura hartu du geroztik eta egun ezberdina eta ezberdindua zenari, txispa isuri zaio. Aurtengoa Xacobeo urtea izanagatik, peregrinazio partikularra ezarri nahi digute: mendeak pasa ahala "domuit vascones" diotenen propaganda antzua barneratu gabeak gara. Penitentzia zantzurik ageri ez zaigunoi, penitente legez tratatu nahi gaituzte. "Chove norte na cidade".

Bisita ordua heldu da horrela. Bihotza abiadura bizian dabilkit, amorruaz eta ezinegonaz blaiturik. Printzipioz, azken kontutxoak trukatzeko behar zuen aurrez-aurrekoaren ondorengo bisitak, kristalaz bereizita egin beharreko hark, baina batera egoteko momentu bakarra bilakatu da bortizki. Haatik, segundo apur batzuetan niri eta alboko *irmadiñooi*[2] aurpegiak era

---

[2] "Irmadiño" XV.mendean Galizan jauntxoen aurka altxaturiko matxinatuak izan ziren. Gehienak nekazariak izan baziren ere, hirietakoak gehitu ziren baita. Bi matxinada eman ziren mende hartan.

bat aldatu zaizkigu, bisitariak baserritarrez jantzita, lerden eta irribarretsu agertu zaizkigunean...“Non duitasuna zigorrean neurtzen den”.

Interbentzio irlak gurutzatu dituzte sendiek euren kontakizunekin, eta arestian pairaturikoa azaldu digute: denok batera aldarrikapen afixekin sartu dira, espetxeko zuzendariarentzako eskutitza ekarri dute, zerbitzu buruen eta funtzionarien mehatxuak pairatu, txapelokerrek jazarriak izan dira, eta, azkenean, mihaketetan ukituak izateari uko egin diote. Compostelan ere bildu omen dira protestan, eta han ere txakurren presioak izan dituzte. Bertako eragileekin bildu dira gero, eta, hona bueltan, etsi ordez, Mikel Urdangarinek aipaturiko irri hura dakarkigute, “non han zaudetenak, gu zareten”. Pepa *La loba*[3], Galiziako lur honetan ibilitako bandoleirak eta bere taldekideek ez dute inoiz burua makurtu, ezta pentsatu ere. Guk ere maite zaituztegu!

Hilak 15. Eskaera-orria igorri nuenetik “ofizialki” itxaron beharreko egunak igaro dira. Oroitarazteko orria egitera nindoala, erantzuna jaso dut: “Eskatutako egun eta ordu horiek, beteak daude”. Lau ordutegi ezberdin jarri dizkigute, baina bisitak banaka egitekotan onartzen dizkigute aurrez-aurrekoak. Alegia, kideren bati bisita lehenago egun eta ordu berean onartzen badiote, nahiz eta 30 gela libre eta hutsik gelditu, ez diote beste euskal preso bati bisita onartuko; gainera “txanda betea” dagoela aurpegiratuko dizute. Instant honetan Kevin Mitmick[4] estatubatuarra gure artean izate nahiko nuke.

Hilak 16. Etxera deitu beharra daukat eta 5 minututan gertaera guztia kontatu eta zein egun eta orduta bidaltzen ditudan orain zehaztu beharrean gaude. Presaka, arinki, emaniko informazioa barneratzen laga barik eta behin telefono deia amaiturik senideak ene frustrazio birusaz kutsaturik usten ditudala jakitun, eskaera-orri berri bat betetzen dihardut “non loa eta ametsa ez diren bat”.

---

[3] Pepa la Loba XIX.mendean Galizan zehar ibilitako bandoleira bat izan zen. Emakume honek, aberatsei lapurtzen zien eta espetxetik ihes egitea Portu zuen behin.

[4] Kevin Mitnick (Kalifornia, AEB) 80 eta 90-ko hamarkadetan AEB-tako hainbat enpresen segurtasuna colocan jarri zuen hackerra da. Espetxean lautan egondakoa da eta 1983an Pentagonoko ordenagailuetan sartzen ahalegindu zen.

Hilak 20. Orritxo arrosa berri bat eskura: "Egindako azken eskaeratako bat onartzen dizugu, baina bigarrengoa okupaturik dago. Igandean libre duzu". Eta beste prozesu bat hasi behar. Telefonoz agortutako minutuak, elkarri nola gauden galdetzeko ere ez digute balio izan, bisiten aferari aterabide bat emateko inbertitu baititugu, halabeharrez, geroz eta azkarrago doazen uneak. Ez, ez dago etxean. Eta etxean egon gabe jarraitzen dugu.

Hilak 27. Aurrez-aurrekoaren eguna. *El día de la marmota* filmaren emanaldi eguna bilakaturik, eta gu ezin etsi, "non mutu ez non damutu ez". Ikustaldi ordua iritsita, maitasunez betetako lera *porco celta*[5] tankerako urdindunen paretik daramagu. Ez zaitez larritu, esku biak libre baititut zuretzat. Anpulurik ez, maitea... "Argiak ez beste ditut maite".

Teixeiro-Curtisen, 2010eko abuztuan.

[5] Porco celta Galizan berreskuratzen dabiltzan txerri klase autoktonoa da.

* Bestelako erreferentzia bi daude: Jokin Urainen azken liburuaren izenburuari, "Ez dago etxean. 1937-2009 kartzela eta literatura" (Susa, 2010) batetik, "Hondartza galdua" izenburudun Joseba Sarrionandiak idatzi eta Ruper Ordorika abesturiko ("Memoriaren mapan", 2006) "esku biak libre ditut zuretzako" pasartea, bestetik.

Xabier Aranburu Muguruza
1962
Usurbil

1991an atxilotua.

C.P. Herrera de La Mancha
Apdo. 77
13.200 Manzanares
Ciudad Real

Pederastia agertu

1
Pederastia agertu
Eta giroa ankertu
Pekatuaren zaparrada ezin
Elizan atertu.
Eskandalua da gertu
Beharko dute aztertu
Milaka ardi nola zaizkien
Akerbeltz bihurtu.

2
Zelibatua ezetsi
Ta deabrua goretsi
Zuten akerrak infernuraino
Egin ziren jaitsi.
Bekatu latzak hobetsi
Zituztenez ezin atsi
Bide eman gabe moralgabeko
Bost sexu ametsi.

3
Hamaika umezurtz loretan
Zebiltzanak ametsetan
Murgilarazi zituzten gogor
Amesgaiztoetan
Nork daki zenbat urteetan
Itota mehatxuetan
Bizi osoko trauma itsasiz
Burubihotzetan.

4
Jokaldi maltzur abilez
Vaticanoaren bidez
“konspirazio” bat dagoela
Esan dute zinez.
Sermoi galantak eginez
FEDE itsuaren grinez
Pederastia ondo babestu
Nahian nahitanahiez.

5
Eliz-Amaren sermoiak
Dirade atzerakoiak
Amen batean gurutziltzatu
Ditu marikoiak.
Baino argi dio arrazoiak
Zeintzuk diren “umekoiak”
Bistan baitdaude pederastaren
bekatu beltz lohiak.

6
Salaketen erritoa
Ez denez katolikoa
Hainbat gotzainek kargua utzi
Dute alajainkoa.
Pausoa ezta nahikoa
Baina gertaturikoa
Argibideak sendotzeko da
Berebizikoa

7
Malkoak begien puntuan
Biktimak hor daude sutan
Justiziarik ez dira egin
Harturik kontuan.
Jarraitzen dute burrukan
Zigorra dezaten ukan
Pederasta orok epaitegiko
Legeen eskutan.

8
Pederastak luzaroan
Inpunitate giroan
Penitentzia egin du Eliz
Amaren kolkoan.
Baina jarririk behingoan
"egi-moralak" jokoan
Vatikanoa sartu du krisi
Latz baten zuloan.

Doinua: *Aizak hi mutil mainutzi*
Egilea: *Biktima*

Bertso berriak 1960ko Kontxako irabazleei jarriak

1
Mila bederatzirehun ta hirurogeian
Kontxan estropada fina
Jokatzekotan zirenez gero
Bazegoen ikusmina
San Pedro eta San Juandarrak
Jaizkibel eta agina
Beren kalean jarrita zeuden
Jaezaren zai jakina
Bandera jeitsi orduko hasi zen
Lehen txanparen gordina.

2
Izan zen oso ikusgarria
Estropaden hasiera
Arraunzaleek ere zioten
"horixe duk arraunkera"
Mutil zailduen faltik ez zegon
Indarra ere sobera
Tosten artean sendo arituz
Zindoazten txit aurrera:
Gainontzekoei txopa erakutsiz
Akuarium-aren papera.

3
Hortik aurrera itsas-zabala
Izanagatik traba
Arraunketaren dotorezia
Inoiz ez zenuten laga
Olatuaren gandorra hartuz
Tinko paladaz-palada
Traineruaren branka airean
Huraxe zen abiada
Konturatzeko ailegatuak
Sienten ziabogara.

4
Patroi bizkorrak agindurikan
Han hasi zen maniobra
Brankan zegoen arraunlariak
Ezpata sartuz hondora
Ababorrean batzuk ziaka
Istriborrekoek boga
Uztartu ziren trebetasuna
Teknika eta ganora
Primerakoa suertatu zen
Egindako ziaboga.

5
Bikaintasunez zinatelarik
Ziabogatik atera
Azken luzera hartu zenuten
Kontxan jarriz begirada
Indar apurrak bikain gastatuz
Poparian badaezpada
Nagusitasun osoarekin
Arraunean nahierara
Ziztu bizian joan zineten
Donostiako badiara.

6
Badiatikan helmugarako
Ur eremutan sarturik
Ikuslearen ohiu artean
Azken txanpan murgildurik
Arrauna sartu eta atera
Patroiak hala agindurik
Abaila hartan ez zegoen zuei
Irabazteko modurik
Lehen postuan sartu zineten
Denak utziz txunditurik.

Doinua: Hamarreko nagusia
Mundu honetan holako gauzak

Maitasun ikurrak

Olentzeroren etorrera gogoangarrian
Elkartasunezko sehaskan biltzen
Diren pertsonak biziki ditugu sentitzen.
Neguaren aurpegirik gordinean ere,
Maitasunaren uharrak bultzatuta
Suharki ekiten diote abestia isurtzeari.
Parrastaz-parrasta sortutako olatu
Izugarriek, urruntasunaren labar
Gotorrak nahierara kolpatuz,
Lortzen dute sorginkeria egiaztatzea.
Abesti xaramelagarrien zipriztinak
Burdin-leihoa gainezkatuz iristen zaizkigunean
Bihotza biluzteko ez dugu inolako
Erreparorik izaten
Bizi-tanten igurtzi suspergarria
Ukendu ezin hobea baita
Txarrantxen arteko egunerokotasunak
Eragiten dituen zauriak eztitzeko.

Naturaren pilpirak

Udaberriaren ezpain hezeek
Muxukatutako paisaiari
Ernetze basatiaren dardara
Antzematen ahal zaio
Zoramenezko taupadetan.
Berdetasunez apainduriko belazea
Haizeak kulunkatuta dabil
Hazkuntzaren mozkorraldian gozatzen
Bulartutako zuhaitzak
Birikiak puzturik ari dira
Atmosferaren askara
Bizitzaren hatsa isurtzen.
Zelaiaren osotasuna
Alderik alde arraildu duen
Erreka garden uhartsua
Bazter-hegiei laztan eginez
Xuxurlaka doa
Basoaren bihotzerantz.

Gangaren begitik

Gauak menperatzen duen eszenategian
Ezkutatu berri den eguzkiak
Azken ahalegin bat eginez
Limurtzaileen trebeziaz lortu du
Gauari aurpegitik beloa altxatzea.
Argitasunez josiriko gangaren begitik
Ikusmena txunditzeko adinako
Paisai zoragarri bat
Geratu da agerian
Non zerua eta lurra
Amodiozko erritualaren menpe
Musu ezti batez uztartu diren.

Gaueko inspirazioa

Lozorroan sartutako kontzientzia
Gauaren sehaska tapakian
Hondoratu zaidanean
Inspirazioa asaldatuta esnatu zait
Sormenaren akuiluak eraginda.
Pintzela berehala hasi da
Margoa harramazkatzen
Kreatibitatearen aurpegia
Osotasunean urratzeko.
Magiak biltzen dituen pentsamenduak
Amets fantastikoen gogoetak
Sorginkeria ugarien pasioak…
Amesgaiztoaren labean egositako
Koloreekin azaleratu ditu
Gaueko inspirazioak.

Fernando Alonso
1961
Sestao

1996. urtean atxilotu eta espetxean dago harrez gero. Idatzi dituen liburuen artean: "El repartidor de sueños" (Txalaparta, 2000), "¿Por qué luchamos los vascos?" (Txalaparta, 2005)

C.P. Alicante II (Villena)
Carretera Nacional 330, km. 66
03.400 Villena
Alicante

Reivindicación temeraria

No creo que pueda ser considerado una persona inconsciente. Si preguntaran a mis amigos, no dudo que la opinión más generalizada respecto a mi forma de ser es que soy un hombre cauto, tranquilo, en ocasiones, incluso demasiado tranquilo, tanto que no pocas veces me han dicho aquello de "vaya cuajo que tienes, txo!". Pero es que me gusta meditar las cosas para no precipitarme, considerar los diferentes aspectos de lo que se presenta y, tras la debida evaluación, decidirme. Tal es así que no han sido pocos los trenes que he perdido en la vida. Ya se sabe, que si quizás el siguiente vendrá con menos viajeros, que tal vez el próximo sea el de los nuevos vagones recién estrenados… y quien habla de trenes habla de autobuses.

Que nadie se confunda. Lo mío no es indecisión. Yo no soy una persona para nada indecisa. Lo que me sucede es que me gusta sopesarlo todo antes de tomar una decisión; y eso muchas veces provoca que cuando adopto una postura es ya demasiado tarde, y ya ha desaparecido la ocasión. Por eso me muevo tan mal en temporada de rebajas; por eso me cuesta tanto cambiar de coche; por eso, de joven, en cierta ocasión, había acabado el curso académico y seguía sin encontrar mi piso de estudiante. Insisto en que no es indecisión. Es, simplemente, que soy muy reflexivo a la hora de dar determinados pasos. De ahí que para nada se me pueda considerar un inconsciente; y mucho menos aún, imprudente.

Sin embargo, es lo que voy a hacer, esto que ya estoy haciendo, sí que se puede considerar una imprudencia. Aunque parezca una contradicción. se trata de una imprudencia muy meditada. Es decir, que estoy siendo imprudente pero no inconsciente.

Es que tal y como están las cosas hoy en día en este país, como fluye la coyuntura, no deja de tener su importante tasa de riesgo dejar por escrito lo que vengo a reconocer por la presente. De ahí la imprudencia de la que hablo. Porque en estos tiempos que vivimos uno puede dar con sus huesos en la cárcel bien sea por acción, omisión o pensamiento. Uno le dice buenos días a su vecino, autoridad de ocupación, y acaba entre rejas

por "sutil amenaza implícita", delito tipificado en el Anexo 1 del Código Penal y que supone pena ele privación de libertad. No es necesario hacer nada, es suficiente con pensarlo y ni tan siguiera eso: con que piensen que lo hayas podido pensar, la causa está abierta y la celda aguardando.

En fin, que aunque nadie pueda decir que soy una persona inconsciente, se que vaya cometer una grave imprudencia. Pero es que ha sido tan fantástico que no me lo puedo guardar sólo para mí. No aguanto más y tengo que contarlo, aun a sabiendas de que se trata de una reivindicación temeraria.

Como cada tarde. ayer regresaba del trabajo por mi ruta habitual. En los último tiempos proliferan por esta carretera los controles de la Guardia Civil. Son un auténtico incordio, pero hacer el camino de vuelta a casa por otro recorrido que no sea éste duplica el tiempo del viaje, Así que los lugareños, a pesar de estas siniestras presencias por los alrededores, siempre tomamos el trayecto más corto.

Por mucho que uno se harte de verlos, harto hasta la náusea, jamás se acostumbra a ellos. Siempre las mismas miradas cetrinas, igual prepotencia y chulería, Haga esto, haga lo otro: qué es esto. qué es aquello… a dónde va, manzanas traigo... Pase, colóquese ahí, siga, Un pasito p' alante: María, un pasito p' atrás ... y así todos los días. e incluso en ocasiones varias veces en el mismo día. Te cansas, hostias, tanta película de vaqueros y a uno siempre le toca ser en indio jodido. Luego pasa lo que pasa, que por muy tranquilo que se sea, la paciencia tiene un límite.

Giré en la curva de Artola y, para no variar, ahí los vi a mitad de la recta. Justo a la altura de Txarrileku. Supongo que se sienten cómodos en ese paraje pues es uno de los puntos habituales en los que montan sus controles. La subida de Txakurtoki es otro de sus lugares preferenciales.

El de ayer a la tarde era un control bastante más espectacular que en ocasiones anteriores. Otras veces se suelen ver una media docena de vehículos, tal vez alguno más. Digo la cantidad a ojo porque nunca se me ha ocurrido contarlos, tengo cosas en la cabeza bastante más importan-

tes que ponerme a contar pikolos. Así que no sé cuántos acostumbran a ser los ordinarios, pero desde luego que ayer había muchos más. Me pareció un dispositivo impresionante; y más aún a medida que me iba aproximando a él.

Ya he dicho anteriormente que no por habituales uno se acostumbra a estas eventualidades. Esta constatación vale igualmente para el miedo. Una cosa es que sea un tipo tranquilo y otra que no me afecte el miedo. Por eso debo reconocer que cuando veo un control de la Guardia Civil aprieto el culo para no cagarme. Y eso que soy un honrado y honesto ciudadano que retorna a casa tras su jornada laboral, que ni llevo nada en el coche ni mucho menos oculto nada. A pesar de ello, un latigazo de terror me recorre los tuétanos nada más verlos y comienzo a mirar compulsivamente todo lo que haya mi alrededor dentro del coche, como si dudara de mi inocencia, como si fuera consciente de que hay algo en el auto que me va a delatar.

Delatar. Delatar, ¿de qué?, si llevo el coche como si fuera un quirófano radicalmente aséptico no ya a los gérmenes sino a la subversión, He ido quitando absolutamente lodo lo que llevaba en el vehículo que pudiera ser en modo alguno objeto de sospecha, que pudiera dar pie a cualquier interrogatorio. Porque éstos no preguntan, interrogan. Aquella EH de Euskal Herria que con tanto orgullo lleváramos lustros atrás junto a la matrícula tuve que quitarla un día con una espátula. Y ya no sólo por las fuerzas policiales extranjeras sino, y sobre todo, por las nativas, que se empeñaban con particular saña. Ovejitas y jabalís también hubo que arrancar pues se convirtieron en piezas favoritas de estas alimañas, y llevarlas en el coche -no me refiero a las alimañas- era sinónimo de problemas graves en los controles. Al final higienicé tanto el coche que no dejé más que herramientas, repuestos y otros adminículos establecidos por Ley, además de un pequeño y anacrónico portarretratos magnético con la foto de la familia que me regaló mi ama cuando estrené el coche, era uno de esos en los que se lee "Ven despacio. No corras". Como no me gustaba -me hacia sentir viejo- lo llevaba un tanto escondido y únicamente lo colocaba en el salpicadero cuando llevaba a ama en el vehículo. Por la foto de aquel maldito portarretratos vi el amanecer mirando al monte

una noche que regresaba tarde a casa después de una fiesta. Supongo que fueran se aburrían y decidieron tocarle las pelotas al primer imbécil que pasara a aquellas horas por allá. Y es que si no, no alcanzo a entender cómo se puede decir que llevaba la foto de marras para identificar a futuros objetivos de atentados y, en base a ello, sacarme en volandas del coche, ponerme mirando al monte y estar cerca de dos horas de interrogatorio surrealistas. Tras aquella experiencia decidí no llevar nada sospechoso en el vehículo. Cuando llegué a casa guardé el portarretratos en un cajón, y ahí creo que sigue. Desde entonces ama ha subido muchas veces en el coche y jamás ha preguntado por el funesto accesorio. Confío en que no me regle nunca un cojín para el asiento trasero, pues eso incluso a mí me resultaría sospechoso.

Como venía diciendo antes de esta digresión, o no tan digresión, el benemérito dispositivo de ayer era espectacular. Hasta me pareció ver la imagen del propio duque de Ahumada supervisándolo todo sentado en una nube crepuscular. Por haber en el lugar, había incluso una tanqueta acompañando a esos impresionantes todoterreno que provoca pavor hasta su color fúnebre. Me entró tal tembleque al ver todo aquello desplegado en Txarrileku que no pude ni contar cuántos había.

Antes de llegar a la primera señal indicadora del control, yo ya había reducido notablemente la velocidad. Tampoco en exceso, pues si uno va conduciendo con cierta, digamos, alegría y al verlos reduce con brusquedad, tal vez ellos pudieran interpretarlo como una actitud hostil y nos meteríamos en un problema de consecuencias seguramente dramáticas. En esta materia, lo habitual del acontecimiento incluso ha educado los sentidos y, cuando la vista detecta el operativo, un inmediato acto reflejo hace que el pie del acelerador adopte la velocidad más indicada para el caso. El cuerpo actúa ya sin pensar, es una reacción instintiva. Mientras llegaba lentamente al punto en el que un individuo me hacía indicaciones para que me detuviera, me sentí un conejo en una convención de escopeteros. Igual es una comparación un tanto exagerada, pero puedo asegurar que me veía en los mecanismos de puntería de las numerosas armas que me rodeaban. Esa sensación que en principio puede parecer, así dicha, abstracta o subjetiva era una auténtica percepción física. Ni

llevaba nada, ni había perpetrado nada; pero el simple hecho de verse en una situación así ya provoca sofocos, y hasta una insoportable sensación de culpabilidad. Incluso a uno le da por pensar qué ha hecho a lo largo del día; y mientras detiene el vehículo, repasa velozmente su vida en busca de algún pecadillo inconfesable. Pero, ¡qué pecadillo inconfesable, si uno lo único que está haciendo es regresar a casa después del trabajo y resulta que se ha topado con un jodido control!

Eso sí, ante todo educación. Deben de haber estudiado disciplina inglesa en el colegio británico. Por eso las primeras palabras son siempre de amable salutación, como la simpática broca pequeña que prepara el agujero para meter luego la grande. "Buenas tardes, ¿de dónde viene? ¿a dónde va?"… Luego silencio introspectivo con mirada en modo de barrido y escáner, supongo que mientras realiza la correspondiente evaluación militar de situación y contingencia. Segundos después, lo habitual: "Diríjase hacia allá, siguiendo las indicaciones de mi compañero, pare luego el motor y coloque las manos sobre el volante".

Realizo siempre estas maniobras de forma automática, aunque en algunas ocasiones se me ha calado el coche por culpa de los nervios. Ya he dicho que por mucho que este tipo de incidencias sean prácticamente diarias, yo siempre padezco el mismo miedo. Me suelo consolar pensando que incluso los más veteranos actores de teatro siempre dicen que al salir al escenario sienten igual nerviosismo que el primer día. Miedo escénico creo que lo llaman. Así que yo, cuando pasa todo, justifico mi cagalera acudiendo a esa tensión que dicen sufrir hasta los más experimentados actores. A fin de cuentas esto no es más que un teatro, un macabro teatro, eso sí.

No sé si únicamente a mí me pasará esto, pero no se me quedan nunca las cara de estos individuos. Uno supera con éxito su enésimo control policial y es incapaz de recordar un solo careto, y eso que, probablemente, casi siempre serán los mismos porque la producción de esta cuadra no creo que sea infinita, y a base de hacer lo mismo día tras día y en la misma zona necesariamente se tiene que repetir personal. Vamos. que es una cuestión matemática. Pero yo soy incapaz de distinguirlos, por mucho

que fueran los mismos todos los días. Me sucede lo mismo con los cerdos de Mattin, que todos me parecen iguales y, sin embargo, él los trata por su nombre. En más de una ocasión y ante mi perplejidad por su extraordinaria facultad, Mattin ha tratado de hacerme ver las diferencias entre los gorrinos. No ha conseguido nada. Dice que lo que sucede es que no me fijo. Pues bueno, lo mismo me debe de ocurrir con estos otros.

A pesar de esto que acabo de decir, el guardia que me señalizó el lugar en el que detener el vehículo para el registro me resultó conocido. Al principio no supe porque, más bien, no supe de qué me sonaba pues era evidente que tenía que ser de algúnn otro episodio similar al presente. Salí de dudas en cuanto me miró con ojitos cachondos y frunciendo los labios a modo de trompeta me obsequió con un sonoro "mua" a tres palmos de mis narices. Probablemente fue el miedo el que tiró rápidamente de archivo y me trajo a la memoria un comportamiento exactamente igual vivido la noche del viernes en una taberna del pueblo, ¿Era el mismo individuo? Algo me decía que aquella tarde llegaría con más retraso de lo habitual a casa ...

A estas alturas habrá quien piense que soy un cagueta; y sentirá su diagnóstico corroborado si digo que tardé todo el fin de semana en quitar el tembleque de la noche del viernes a la que acabo de hacer referencia.

Yo soy un tipo de lo más normal, vecino de un pueblecito rural bastante próximo a la capital. Nunca me he significado en nada; es decir, que pertenezco a esa mayoría de ciudadanos que procura vivir y dejar vivir y que trata de que todo discurra sin problemas. Eso sí, soy vasco y quiero que seamos nosotros mismos quienes decidamos sobre nuestro futuro, sin injerencias del norte ni del sur. Pero es que hasta esto tan sencillo y razonable se ha puesto clandestino en los últimos tiempos, y con la coartada de acabar con la subversión no nos dejan vivir en paz y nuestras vidas se ven permanentemente amenazadas, coaccionadas, incluso chantajeadas económicamente.

Lo que sucedió en la noche del viernes había ocurrido de manera similar durante otros fines de semana. No sólo en nuestro pueblo sino también

en muchos otros de los alrededores; y no únicamente de noche, pues también ocupan militarmente otros lugares a cualquier hora del día. Llegan con sus tremendos vehículos sombríos como ataúdes se despliegan por calles y plazas al igual que en las películas, encañonando a la gente, amenazando con su presencia, otras veces tan sólo circulan lentamente, sin detenerse, o paran la caravana para arrancar carteles y luego se van.

Asaltar tabernas los fines de semana se ha convertido ya en una costumbre. La ronda nocturna de cervezas y kalimotxos ha pasado a ser una actividad más de riesgo que de asueto, pues uno nunca sabe en qué momento de la noche los verá entrar por la puerta. Y si no pasan por nuestro pueblo es que estarán en otro. Hay incluso porras en bares y cafeterías con apuestas sobre qué pueblo o qué taberna asaltarán el fin de semana. Los premios son sustanciosos porque hay mucha participación ciudadana. El cuadrante está escondido, por supuesto, no sea que lo descubra la autoridad ocupante. Al igual que en Estados Unidos hay tipos que se dedican a localizar tornados y meterse en ellos: aquí también tenemos lugareños similares que rulan de pueblo en pueblo buscando la desgracia. Este país está lleno de inconscientes. Yo ya he dicho al principio que no soy ni inconsciente ni imprudente, así que sobra decir que en mi cueza no entra semejante deporte; incluso me parece una temeridad gratuita que puede salir muy cara. No los entiendo, pero todos dicen que es un formidable subidón de adrenalina.

Bebíamos en la Herriko. Eran ya más de las 12 de la noche, así que a efecto de Autos estábamos ya en sábado. De pronto, unas salvas de órdenes a gritos : "Todos quietos, manos arriba, corten la música, contra la pared" … Vamos, lo rutinario en estos casos. Siempre lo suelen decir en ese orden, y yo creo que no es el más indicado ya que si estamos todos quietos nadie puede apagar la música porque incumpliría la primera orden. Son cosas que pienso pero que nunca se me ha ocurrido sugerir. Pues bien, aunque las frases eran las clásicas a mí me dio ya desde el principio la sensación de que había más tensión de la habitual. Algunos de los asaltantes parecían nerviosos. Más tarde, cuando pasó todo y en el momentico postraumático se comentan con soltura las jugadas más interesantes. Todos coincidimos en que los veteranos estaban instruyendo a algún grupo

de novicios recién llegados a la zona, de ahí la notoria diferencia entre unos otros. Así que, sin pretenderlo, estábamos formando parte de la instrucción de los nuevos contingentes. Quizás por eso lo de la noche del viernes duró tanto, fue tan tenso y aplicaron sobre nosotros todo el manual con un celo y una diligencia encomiables. Lo de encomiable lo digo en relación a ellos y sus instructores, pues para nosotros fue una jodienda en todo orden. Creo que ya he dicho que a mí particularmente el tembleque me duró todo el fin de semana y, por si fuera poco, dormí fatal.

Por lo general, entran a las tabernas al asalto e incordian, identifican, interrogan, empujan, zarandean, amenazan a los presentes y luego se van tras arrancar los carteles que no les parezcan correctos y robar la hucha de ayuda a los prisioneros. En alguna ocasión también han soltado algún que otro bofetón.

Además de esto, la noche del viernes nos fueron haciendo salir uno a uno al exterior después de cumplimentar el protocolo en el interior. Si a mí me temblaban hasta entonces las piernas, cuando vi lo que había afuera, creí que ya no me tenía en pie.

Mirara donde mirara no veía más que sombras armadas enmascaradas en la noche. La plazoleta de la Herriko no tiene nada delante, viviendas, quiero decir; es no más que una explanada con algunos árboles limitada por el río. Así pues, sin posibilidad de testigos inoportunos. Probablemente esto que vaya comentar sea una fabulación de mi estado de nervios en aquel momento, pero juraría que sobre mi pecho había varios puntitos rojos de esos que se ven en las pelis cuando le van a disparar uno. Los lanzadestellos azules hacían que aquello pareciera una macabra discoteca *house*.

Lo que había allá afuera era surrealista. En la taberna no estábamos más de dos docenas y yo fui de los últimos en salir al exterior. Mientras me tomaban de un brazo y a empujones me colocaban en aspa mirando a la pared pude observar que tenían al personal en grupos separados mientras uno a uno y por turnos nos iban metiendo en una furgoneta para, según decían, confirmar nuestra identidad y hacernos algunas preguntas.

Cuando me tocó a mí subir a aquel terrorífico vehículo, estaba aturdido y ya se me había pasado el puntillo de cervezas que ostentaba hasta entonces.

Lo pasé fatal respondiendo como podía a un montón de preguntas estúpidas que no tenían ni pies ni cabeza. Era evidente que el objetivo único de todo aquello era no más que aterrorizar e incordiar, y ellos pasar un buen rato al tiempo que instruían a los novatos. Puedo asegurar que se lo estaban pasando fantástico, pues tras el interrogatorio o lo que fuera regresé a la plazoleta e hicieron que me uniera a uno de los dos grupos que el benemérito instituto armado había organizado para amenizar la velada y hacer más agradable la espera de la confirmación de la veracidad de nuestros datos.

Yo fui alistado en el grupo instrumental. Digo esto porque nos correspondía interpretar el himno español que, como no tiene letra , basta con tararearlo. Al otro grupo podríamos llamarlo coral, ya que les tocó perpetrar el himno de la Guardia Civil a varias voces. Bueno. evidentemente todo el himno no, tan sólo el estribillo, los versos más populares.

Ambos grupos permanecíamos de rodillas en el suelo con las manos sobre la cabeza. El que parecía ser el jefe de aquello no paraba de decir que cómo podíamos cantar tan mal siendo vascos, cuando todo el mundo sabe que los vacos cantan extraordinariamente bien. Se me ocurrió pensar que también todo el mundo sabe que lo españoles son toreros y visten de luces y, sin embargo, a ellos lo único que les lucían eran los cuernos. Sobra decir que no dije nada. Incluso me arrepentí de haberlo pensado, no fuera que tuvieran algún dispositivo para interferir pensamientos. Además, ¡cómo hostias pretendía el tipo aquel que cantáramos bien en aquella incómoda postura! Así no lo hace ni el Orfeón Donostiarra.

En fin, que mientras unos andaban con lo de “”viva España, viva el rey, viva el orden y la ley, viva la Guardia Civil”, compactados por un sujeto sin batuta pero con fusil terciado al pecho que, para mi gusto, teatralizaba en exceso los ademanes; los otros no salíamos del “chunta-chunta”, dirigido por un homólogo del anterior, eso sí, de gesto más comedido.

Yo tenía la boca ya excesivamente reseca y comenzaba a necesitar urgentemente un trago cuando se empezó a haber movimiento en la tropa ocupante. Se deshizo coro y orquesta y nos colocaron a todos contra la fachada; mejor dicho, de cara a la pared y de espaldas a la "fachada". Luego nos advirtieron que no nos moviéramos hasta que no escucháramos el sonido del último motor suficientemente lejos.

A aquellas alturas de la noche, ¿qué era suficientemente lejos? Unos segundos después de escuchar que el último rugido giraba hacia Erdikokale, algunos salieron corriendo detrás llamándoles de todo. Sobra decir que el tembleque de mi rodillas me impidió acompañarlos, Lo que hice, en cambio, fue entrar en la Herriko y pedir una cerveza urgente.

Durante todo el chunta-chunta permaneció a mi lado una de aquellas sombra verdes que no dejó de mirarme con ojos de víbora cachonda y de poner morritos trompeteros. ¡Era el mismo del control!

Regresando al relato de lo de Txarrileku, unos segundos después de que el simio volviera a insinuárseme se aproximó otro que me ordenó descender del coche y colocarme a un lado mientras él procedía al registro del vehículo. El primero me mantenía encañonado y cada vez que sin darme cuenta dirigía la mirada hacia él, volvía a ponerme morritos. Si no hubiera sido porque llevaba sin ingerir nada desde la comida creo que le hubiera vomitado encima. ¡Menos mal que no me traicionó la fisiología!

El otro seguía procediendo en el interior de mi coche. Era como si estuviera auscultando asientos, alfombrillas… y eso que, como ya he dicho, hace tiempo que todo está en perfecta profilaxis. Es más, sólo en caso de extrema necesidad hago las compras en la capital para evitar llevar el cacharro lleno de bolsas. Cuando por causa mayor he tenido que hacerlo y me han cazado en el control, he tenido que dar demasiada explicaciones por todo, y ya he dicho que lo paso muy mal.

Por no levar, no llevo ni música propia y voy siempre con la radio. Casualmente una amiga del trabajo me había regalado esa misma tarde un cedé de los Barricada. Nos llevamos muy bien, y días atrás le había comentado

que iba a comprar ese cedé. Así que se adelantó, y cuando fui a salir del trabajo se acercó a mi mesa y me lo regaló. Hemos quedado para cenar mañana: confío que nada lo impida. Si algo ha de ocurrir a causa de esta reivindicación temeraria, por favor, que suceda con posterioridad porque esa muchacha, así entre nosotros, me gusta un poco. Bastante.

El pikolo empezó a darle vueltas al cedé, que seguía en su precinto de celofán porque ni tan siquiera lo había abierto. Esperaba llegar a casa para escucharlo viendo el deuvedé que lo acompaña con un kalimotxo de Rioja en la mano. No me gustan los kalimotxos de vino pelcón, me dan dolor de cabeza al tercer asalto. Por eso sólo bebo kalimotxo en mi casa.

Mirada a la carátula por el frente; mirada por detrás. Observación pericial del canto -entiéndase, borde-. Tasación al peso sobre la palma de la mano. Mirada al cedé. Mirada a mí. Viceversa. Una vez más. Y otra. Parecía el conejo de Duracell vestido de verde. Me puse tan nervioso que rompí el voto de silencio para decirle que era un cedé musical con deuvedé que acababa de regalarme una amiga, que como podía comprobar ni tan siquiera lo había abierto porque el precinto estaba intacto. "Sí, ya, ya", dijo, antes de mirarme con cara de profunda desconfianza y continuar con un " ... pero es que aquí pone Barricada". Ya se sabe, esa gente está entrenada para descubrir cualquier artimaña del maligno, de ahí su mirada clavada en mis ojos.

Entonces, el miedo me soltó definitivamente la lengua. Soy de esas personas que cuando se sienten aterrorizadas en lugar de quedarse en silencio arrancan a hablar, ofreciendo todo tipo de explicaciones, incluso las más peregrinas. Es mi forma de conjurar el miedo cuando se me rilan en exceso las canillas. Y tal era el caso.

Así que me puse a hablar de los Barricada mientras él, impasible el ademán, no me quitaba ojo de encima. Incluso llegué a decirle que habían estado a punto de ser premio Príncipe de Viana. Ahí fue cuando detuvo mi exposición, que a buen seguro duraba ya en exceso. Y lo hizo para preguntarme si lo del Príncipe de Viena era el de la galletas con chocolate. A pesar de la diarrea verbal que sufría, pensé que no era el momento de

entrar en detalles sobre el hijo de Blanca de Navarra con Carlos, Príncipe de Viana, además, no soy un erudito en el tema. Me limité a decirle que no tenía nada que ver con las galletas de chocolate, que se trataba de un galardón muy prestigioso. "Mucho mejor así", dijo él, "Porque aquí no hay más príncipe que Su Alteza Real Don Felipe de Barbón y su señora Doña Letizia, y no son príncipes de Viena sino de Asturias". Me quedé a un tris de precisarle que no era de Viena sino de Viana. Pero a la postre, ¿qué más da, si yo no conozco más princesa que Estefanía de Mónaco?

Dejó el cedé sobre un asiento y continuó procediendo en mi vehículo con una minuciosidad desquiciante. Golpeaba el salpicadero acercando la oreja, introducía su mano enguantada por cualquier orificio practicable. Agitaba las puertas como si se estuviera abanicando con ellas. Por último, recogió nuevamente la pequeña carpeta en la que guardo toda la documentación del vehículo y se fue hacia uno de sus siniestros todo terreno. Antes de alejarse le dijo a su compañero que probablemente tardaría la diligencia -supuse que se refería al trámite, pues por Euskal Herria hace siglos que no pasan diligencias- y que para que no me aburriera durante la espera, que me entretuviera un rato. No reproduciré la de entretenimientos que vinieron a la cabeza que pudiera estar pensando el bujarrón que tenía a mi lado.

De lo que vino luego estoy sufriendo unas agujetas sobre humanas. Aquel pedazo de sádico me separó de la vista de la carretera y me tuvo ni sé el tiempo caminando en cuclillas, dando saltitos, haciendo flexiones. Tarareaba una canción e iba canturreando órdenes como tocarse la nariz, "ahora oreja izquierda", "caída de culo"... y yo allá, como un imbécil, ora cogiéndome una oreja, ora saltando con las manos al cielo. Después de una larga y agotadora jornada laboral no eran horas de hacer el payaso y mucho menos de aquella forma tan humillante. A los pocos minutos yo estaba exhausto por el ejercicio, y a partir de cierto momento cumplía sus órdenes como una marioneta despendolada. Creo que hacía lustros que no hacia tanta gimnasia; quemé más de dos meses de cervezas. Durante la función se fueron acercando a la pista más tipos de verde ceniza. Se lo pasaban estupendo. Todos se reían, menos yo, claro. Hubo quienes acompañaban incluso con palmas mis penosas evoluciones gimnásticas.

Ya que estoy siendo sincero en todo, diré que en aquellos momentos no sentía miedo alguno, Era como si el terror de minutos antes se me hubiera esfumado con las primeras gotas de sudor y el arranque de la respiración entrecortada y torpe. Palmeaban, reían, le hacían los coros al que cantaba, y yo no sentía miedo alguno; tan sólo una humillación, una vergüenza que fue rozando a rabia hasta desatarse en odio.

Cuando retornó el que se había llevado mi documentación, desmontaron mi circo, Me puso la carpeta en las manos y tras decir que todo estaba en perfecto orden, indicó el camino hacia mi coche y me pidió que continuara la ruta.

No sé por qué siempre que salgo de un control le doy las gracias al tipo que me hace el gesto de que puedo continuar mi camino. Supongo que es otro más de los acto reflejos inconscientes que genera el pavor que me producen estos individuos nefarios. Pero al salir de allá no di las gracias.

Sentía en la boca la saliva espumógena de la rabia cuando pisé el acelerador y fui dejando atrás el control. Hacía uno de esos atardeceres que llaman de brujas, cuando está a punto de llover, o ya lo está haciendo, y, sin embargo, luce un extraño sol entre lechoso y dorado.

Miré por el retrovisor interior. Ahí los vi, haciéndose más pequeñitos en la distancia, Exclamé: "Cuánto os odio, malditos: que os parta un rayo".

Entonces fue que escuché el trueno y un fabuloso resplandor me deslumbró. Volví a mirar por el retrovisor y allí que ardían todos en una bola de fuego.

Soy perfectamente consciente de que corriendo los tiempos que corren esto que estoy haciendo es una radical imprudencia. Lo sé, es temerario. Pero es que ha sido tan fascinante, tan extraordinario, que no puedo quedarme sin reivindicarlo.

Villenako gartzelan, 2010eko irailean.

Olatz Lasagabaster Anza

Usurbil

Atxiolotze data : 2009

Prisión Provincial Ávila
Ctra. De Vicolozano Apdo. 206
5.194 Brieva
Ávila

Zurekin egotera joan gabe geratu nintzen azkenean. Hilabeteak nerama-tzan hara joateko asmotan eta gauza bat edo bestea zela, kale azkenean. Ez zenuen lekurik errazena aukeratu Ama Lurrarekin bat egiteko; mendia behar zuen, ezin bestela. Eta orain, hainbeste gauza esango nizkizuke! Gure sekreturik handiena titular nagusi bihurtu zuten etxeko nahiz etxez kanpoko komunikabideek. Hortik hasi beharko nuke, akaso. Baina askoz ere gauza gehiago ere esango nizkizuke…

Jende zoragarria ezagutu dudala esango nizuke eta hitz egingo nizuke basurdeei buruz, bele txuriei buruz, metalari buruz, frijitutako esneari buruz, gaueko txangoei buruz, hautsari buruz, egindako barre eta negarrei buruz, gurutzatutako eta iltzatutako begiradei buruz, irribarreei buruz… Aipatuko nizkizuke sukaldean goizean goiz hartutako sustoak, mendiko tabernak, jertse urdinak, mapak, laranja zukuak, itsasoan hartutako bainuak, nekea, bizikletak, mendia, izerdia, bazkariak, errekak, izarrak eta ilargi betea, aurpegi berdeak, botere magikoak dituzten zuhaitzak… Hitz egingo nizuke minari buruz, konplizitateari buruz, konplizitateari buruz, ezinari buruz, alaitasunari buruz, adiskidetasunari buruz, amorruari buruz, maitasunari buruz, gorrotoari buruz… maitasuna eta gorrotoari buruz, bai. Izan ere, baliteke garaiotan politikoki zuzena ez izatea, baina beti jakin duzu binomio banaezina osatzen dutela niretzat, benetan maite duenak gorrotoa ere sentitzen duelako noizbait.

Horietako gauza batzuk iraganean geratu dira; gure oroimenaren kutxan betirako gordeak "las manos a la cabeza" esaldia entzutearekin batera. Artean filmetan baino ez ikusi gabeko eszena genuen begien aurrean eta orain gu ginen protagonistak. Horrela egon ginen segundo batzuez sukaldeko leihoan puntu gorria genuela. Gogoratzen dudan hurrengoa sabelean sentitutako lurraren hotza da eta bota bat bizkar gainean, soka eskumuturrak lotuz…

Era horretan hasi zen hona ekarri gintuen bidaia eta orain, bestelako bizipenak betetzen dituzte gure bizitza eta izana. Maitasunak ekarri gaitu maitasunaren indarraren kontra eraikitako kaiola erraldoi honetara eta horrek berak ematen digu egunerokoari aurre egiteko indarra. Karra-

tua den munduan bizi gara orain; karratuak dira hemen lurreko baldosak, karratuak barroteen arteko tarteak, karratuak hormetako adreiluak, karratuak ixten dizkiguten ateak, karratuak ateak ixten dizkiguten buruak, karratua patio atea, karratua zerua… Baina, karratutasun honetan, kaiola honetan bizitza ere, etxe hauetatik kanpora bizi diren aske baino askeagoak gara.

Esango nizuke, batzuetan garitara begiratu eta haiek etxera lotara doazela pentsatzen dudanean, une batez (segundo bat baino gutxiago, beharbada) inbidia sentitzen dudala irribarre ez egitearen poderioz ahoko keinua, haserre dauden marrazki bizidunen antzera, beherantz dutela ikusten dudan arte. Uniformearen koloreak berak areagotzen du berezko duten lore ximelen itxura. Baina guk, distantziak distantzia, ongi errotuak ditugu sustraiak eta gure adar eta kimuak indarrez hazten dira udaberria loratuko den unearen zain. Eta konturatzen naiz, preso egonik ere askoz ere askeagoak eta zoriontsuagoak garela, benetako askatasuna sentitzen duguna egiten delako.

Esango nizuke, baita ere, bakardadea eta distantzia gogorrak direla, ez direla betirako izan nahiko genukeen lagun horietakoak, behingoagatik laguntasunari muzin egin eta gustura utziko nizukeela bidean galduta nora joan naizenaren arrastorik eman gabe. Une gogorrak bizitzen dira lau pareten arteko bizitza honetan, baina kide batek esan zidan moduan, asko irabazi daiteke galtzeko eraikitako lekuotan.

Esango nizuke gogorra dela musurik eta laztanik gabeko, hilabeteko besarkadekin (hala usten digutenean) eta kristalezko babesarekin eraikitako mundu hau, baino kideen berotasunak hutsune hori murrizten laguntzen duela.

Esango nizuke maitasunaren indarrak ez duela etsairik ezagutzen eta pausuz pausu bagoazela aurrera patioa gure eguneroko pausuen lekuko ixila delarik, ezer ez baita amaitzen bizitza bera amaitzen ez den bitartean. Esango nizuke nire barnean bizi bizirik zaudela eta bidaia Ixil honetan ere bidelagun zaitudala.

Horiek guztiak kontatuko nizkizuke entzungo dituzunaren itxaropenez, zuganaino helarazteko gai izango naizenaren ziurtasunez eta eskerrak emango nizkizuke bizitzeko aukera eman zenidalako. Zuregaitik ere banaizelako. Zuregaitik ere banaizelako naizena.

Iñaki Gonzalo Casal, *Kitxu*
1964
Getxo

1994 urtean atxilotu zuten. Gaur egun Dueñaseko espetxean dago.
Hainbat liburu argitaratu ditu "Carta a un fantasma"(Txalaparta, 1997), "Hace frío aquí en España" (Hiru, 1998), "Nadine" (Txalaparta, 2000), "La baca de Amin" (Txalaparta, 2002), "El niño de Maguey"(Txalaparta, 2006), "¡ Cómo no quererte, Alba!" (Txalaparta, 2009)

Prisión Provincial Valladolid
Ctra. Adanero - Gijon, km. 94
47.011 Villanubla
Valladolid

Bilal Bakaliren ametsa

Bilal Bakali Tanger hiriko auzo zaratatsu batean jaio zen. Zortzi anai-arreben artean gazteena zen Bilal; gazteena bai baina baita ausartiena ere!

Bere hamahirugarren urtebetetze egunean jateari utzi zion eta bi asteetan fruta besterik ez zuen jan hamahiru kilo galdu arte.

Bere gelako paretan zintzilikatuta zuen paparezko egutegian markatuta zegoen eguna heldu zenean, poltsa txiki bat hartu zuen eta bertan bere gauza batzuk sartu zituen : bi galtzerdi eta galtzontzilo bi pare, Real Madrileko kamiseta bat, gustokoa zuen alkondara gorria eta sukaldean aurkitu zuen galleta pakete bat. Etxeko atea itxi baino lehen "agur" esan zuen, isilka, inork entzun ez zezan…"laster arte" gehitu zuen Bilalek, laster itzuliko zelakoan.

Espaina eta Marokoren arteko mugarainoko bidea laburra egin zitzaion. Bere bihotzak taup-taup-taup egiten zuen. Nolakoa izango zen bizitza mugaren bestaldean?

Taup-taup-taup…

Europan dirua errez lortzen zela esan zion Espainan egondako lehengusu batek.

Eta Bilalek amets egiteari ekin zion:

"… Irabaziko dudan lehendabiziko soldata aitari bidaliko diot. Arropa polita erosiko dut. Markakoa, noski eta neska polit eta on batekin ezkonduko naiz… eta Madrilera joango naiz eta hor, auskalo, zorte apur batekin, Iker Casillas diskoteka batean ezagutuko dut…".

Bere bihotzean ametsak korapilatu zitzaizkion mugarainoko bidean… Ametsak, bata bestearen atzetik; ametsak etengabe; amets bat eta segidan beste bat… eta bera zen amets guztietako protagonista. Bera : Bilal Bakali, eta ez bere auzoko lagunak; hor gelditu ziren lagunak, urratsak ematera ausartu ez ziren koldar horiek…

Bakalik ondo pentsatu zituen gauzak:

"… heldu bezain pronto Algeciraseraino abiatuko naiz eta hor, taberna ezagun batean, Yousefferekin topo egingo dut. Nire lagunak emandako kontaktu guztiak hartuta, Malaga aldera joan eta hor lanean hasiko naiz buru-belarri… nire aita, lehendabiziko diru transferentzia jasotzerakoan, harro sentituko litzateke… ama ere harro, eta baita bere anai-arreba guztiak ere. Auzoan berria laster zabalduko zen, horrelako berri onak azkar zabaltzen direlako; eta urte baten barruan nire sorterrira itzuliko naz, dotore jantzita, opariz beteriko poltsa handi batekin…".

Bilal Bakali gaueko hamabiak aldera mugan bertan dagoen aparkaleku handi batera heldu zen. Bere bidailaguna agurtu eta furgonetatik jeitsi zen zuhurtasun handiz. Bere aurrean, kamioi ilara luze bat. Kamioiak kolore eta tamaina guztietakoak ziren. Bat aukeratu zuen. Handiena. Hurbildu zen, bi aldeetara begiratu zuen eta zis-zas batean kamioiaren behekaldean sartu zen. Gasolina. Depositoa eta aurreko ardatzaren arteko tartea oso zikina zegoen. Oso estua zen baina Bilal Bakalik hamairu urte besterik ez zituen, eta hamar kilo galdu ondoren txoritxo bat ematen zuen. Lumarik gabeko txoritxoa… ezkerreko hanka metalezko kutxaren ezkerreko aldean jarri zuen eta eskuinekoa, eskuinekoan. Besoak soinaren gainean jarri zituen, hilda egongo balitz bezala.

Eta poltsa buru azpian.

Pozik zegon Bilal!

Ezpainetan irribarrea zuelarik loak hartu zuen.

Hil baino lehen, bizitza eta heriotzaren arteko pasabide labur horretan Bilal Bakalik amets polit bat izan zuen : txoritxo bat zen eta zeruaren gainean hegan egiteko gauza zen.

Libre azkenean, libre!

Villanublan, 2010ko irailaren 1an

Josu Bravo Maestrojuan

Tafalla

2003an atxilotua.

C.P. A Lama
Monte Racelo, s/n
36.830 A Lama
Pontevedra

Verde y gris
visten sus laderas
Blancas y negras
las nubes sirven de txapela
Así es Larrun
un día cualquiera.

Dos banderas,
Francia y España
Una raya amarilla y blanca
dividen Navarra
Azules ríos
verdes prados
bosques de robles
y hayas separan
la ribera de la
montaña, pero nada
puede alejarme de ti
TAFALLA.

Hasta las nubes tienen sentimientos.
Sino, mirad cómo descargan lo que
Llevan dentro.
Lo llamamos lluvia, pero son lágrimas.
Lágrimas de dolor, de desaliento, pues
de veneno estamos llenando su alma,
su cuerpo.
Las estamos llenando de progreso.

En las profundidades del mar
guardo mis secretos.
Los vigilan algas y corales
de colores esbeltos.
Van y vienen, a capricho de
las corrientes. Mas el cofre
no se mueve, se queda en el fondo
esperando que tú,
sirena curiosa, lo abras
con un beso.

Luna

Sales de la tierra,
sales con el semblante rojo
para luego, en lo alto,
perder el sonrojo.
Las estrellas te dicen piropos,
y el sol, desde su lecho, celoso,
no te quita ojo.
La noche se ilumina y su
luz descubre anónimos
amores fogosos.

Libertad y justicia:
palabras que nunca se aplican.
Buscando la primera te pasas la vida;
con la segunda, con la anterior,
terminan.

Teresa Toda Iglesias

Donostia

2007 urtean atxilotu zuten.

C.P. Córdoba
Carretera Sevilla-Madrid, km. 391
Apdo. 479
14.015 Alcolea

Nieblas

El sol estalla contra los barrotes y los cristales, pero dentro del txabolo las aspas del ventilador remueven una fina niebla donde entreveo una figura menuda, apoyada en su bastón.

Pequeña, frágil, querida… sobre la base de mis recuerdos, modificada por capas de dolor y soledad en el umbral del olvido, reconstruyo la que puede ser su imagen actual. Se desvanece ella, sin ser por completo, la persona forjada en 90 años de vida, que resurge en mis recuerdos cuando se alza la niebla.

La bruma va invadiendo su mente. Ahí se van deshaciendo sus conexiones físicas y emocionales con un hoy que nunca ha vivido, sólo existido. Quienes la queremos y observamos –aunque sea desde tanta distancia-necesitamos creer que esas nieblas son en cierta forma un alivio, el algodón que suaviza el terrible tránsito por el alzheimer hasta el olvido, despojado ya del revestimiento de humanidad social hacia la humanidad, más elemental, esencial, sin aditivos de hábitos conscientes e historia vivida.

Hace tiempo que rebasó la paradoja del olvido que alivia el dolor de saber que, irremediablemente, todo se va a olvidar.

Se funde con la niebla, se desdibuja; sus pasitos se han ido perdiendo en ese bosque frondoso, fértil y fresco de su vida, en un confuso paseo que mezcla instantes y personas.

Se me aleja, se me escapa, se me va, y no puedo estirarme como la niebla a través de los barrotes para acunarle, para hacerle sentir el calor del roce de mis dedos sobre su cara, sobre su espalda, para darle cariño en un abrazo, en un lenguaje que aún comprende. Aquí, donde estoy, la niebla se entreteje en la sinfonía que me acompaña a alto volumen para amortiguar la sordidez de los gritos intermodulares, repetitivos como otra cadena sin fin.

Pasa el recuento, pasan las horas, y yo vuelvo a su casa, a su pequeño vivero, a otro sol y a otro calor, amarrada a mi impotencia absoluta, mientras ella pasa las horas sin saber que las pasa, irreal en su realidad, mezclando el inalcanzable sueño de regresar, ella también, a su casa u su jardín, con los primeros recuerdos de su infancia y juventud.

No sabe qué pasó ya más de año y medio desde la muerte de su segundo hijo, el que quedaba tras morir el primero, mi compañero. Fue esa segunda muerte, tan contraria al curso natural de sus vidas, la que al final abrió el arcón del dolor extremo y quebró su fortaleza, entregándola al lento deambular por el vacío hasta el fin.

Una sola vez la vi, a ella y su segundo hijo, tras los cristales siempre empañados de un locutorio. Cuánta fuerza necesitó para venir, pero vino. Y yo no puedo devolver la visita; la tajante frialdad de barrotes y cemento roban el calor que quisiste darle.

Impotencia. Rabia. Una tenue línea de vida en cada carta que alcanza el vuelo sobre los muros para posarse en su regazo, con la esperanza de que imágenes alegres y las palabras de cariño le abran un caminito en la niebla y lleguen a hacerle sonreír, aunque ya no sepa qué es una carta, ni quién soy yo, ni dónde estoy… Con tal de que siento que la quiero a través de las infinitas gotas de esa niebla que, suave y tristemente, la va absorbiendo, fundiendo; esa niebla que también flota hoy en mi txabolo.

Cordoban, 2010ko irailean.

Ukitu gabeko aurrez aurrekoa

Azkazalarekin handitzen ari da burdienan dagoen altxatua; beira zikinatik harago, begirada porlanezko pasadizuan galdua. Itxaroten dago. "Aiba!". Bat batean konturatzen da atzo kontu handiz margoztutako azkazalak honda ditzazkeela barrotea harraskatzen jarraitzen badu. Eta ez, ez da hori! Bere bilobatxoak esaten duen bezala, "wapa-wapa" egon nahi du hilabete luzez ikusi gabeko alaba berriro besarkatzeko.

Txaboloan, neskak begiak margotzeko arkatza eskuan du. Arkatza eskuan eta ximeleta batzuk sabelean. Gaixotasun luzea gaindituta, aurrez-aurreko bisitara erotzeko indar nahikorik badu bere alak azkenean.

Atzo goiz erretiratu zen ama herriko kaleetatik. Egunero hiru ordu inguru ibiltzen da : goiko baserrira eramaten duen bidexka hartuta, handik zelai handira, ur-depositora, tren geltokira… etxera. Edo, indartsuago baldin badago, mendigo bidea hartu, maldan gora, goizeko freskotasunez gozatuz, mokau bat jan, eta buelta.

"Ez, maitia, ez; inoiz ez noa bakarrik, benetan!". Behin eta berriz errepikatzen dio kontua, alabari, telefonoan. "Ez kezktu, badakizu nahiko ausarta naizela baina ez zoroa. Eta kalean ikusi behar zaitut…".

Orain berarekin gehienetan doan lagun minaz gogoratzen da. Zer ondo neurtzen duen berak noiz behar dituen ixilune goxoak, noiz elkarrizketa sakonak, noiz txorakerietan aritu… Bai, eta beste lagunak paseokide onak dira ere.

Neska asko ibiltzen da, bera ere bai. Ibili eta korrika egin, oso bestelakoa den eremuan : Gogorra, grisa… hor ez dago belardien leuntasun berderik. Irratia du konpania askotan. Kideak kenduta, elkarrizketa eta harreman emankorretarako aukera gutxi hormen artean.

Atzo betiko orduetan txapatu zuten galeria. Eta bisita berezien aurreko urduritasunari kezkatxo bat gehitu zitzaion. Nola egongo da, benetan,

ama? Egia al da berreskuratutako kiloak berreskuratu dituela, indartsu dagoela? Badaki familiak egia esan diola gaixotasunaren prozesuan zehar, baina begiekin, eta bereziki, besoak zein gorputzarekin nabarmitzen den egia bestelakoa da. Zuzenagoa, hitzik gabekoa.

Bidaia ondo egin du amak. Furgona erosoa da, eta "a ze gidari majoak izan ditugun!". Goizean, betiko tabernan, tabernariak irribarretsu agurtu dio: "Señora, ¡me alegro de verla! Me dijeron que estuvo enferma, pregunté por usted…". Gustora hartu du kafesnea, eta… bai, ogi xigortuan "pringá" pixka bat jarri du. Azken finean, egun berezia da eta goxoa prestatzen dute… gustora jantzi du soineko berria, gustora apaindu ditu ilea eta aurpegia.

Espetxean, neska esnatu eta dutxa hartu du. Zenbaketa pasatzerakoan, kartzeleroaren keinu zakarrak txaboloaren haizea pozoindu egin du. Guardia txarra dago gaur. Lehioa zabal-zabala airatu du neskak, baina ezin izan du barruan sortu zaion susmo txarra baztertu.

Aurrez-aurrekorako erositako gailetak, olibak eta abarrekoak prestatzen ditu boltsan. Alkondara zuri berria eta gona koloretsua janzten ditu, eta amak oraindik ikusi ez dituen belarritako zein lepokoekin atontzen da. Kideek egindakoak dira, bere urtebetetzeko oparia. Ateak irekitzen dituzte. Behera doa, zerbait gosaltzera eta, ekonomatoan, amari eskeiniko dion kafea erostera. Eta zain geratzen da, ea deituko dioten edo…

"Señora, a partir de ahora tenemos que cachearles para entrar. Pase a esa habitación, que mi compañera efectuará el cacheo con palpación".

"No. No hay razón para eso, usted no me ha enseñado ninguna orden ni nada. No voy a pasar por eso. Ustedes saben bien que lo hacen por política, no por seguridad o cualquier otro motivo".

Amak bizkarra ematen die kartzeleroei. Bihotza txiki-txikia egin zaio, bularrean galduta egongo balitz bezala, sentimenduen itxasoan noraezean. Aldentzen doanean, irudikatzen du bere alaba besoartean estu-estu har-

tzen duela, eta hain den indartsu irdudia, ezen albaren berotasuna sentitzen duela uste duen; eta bihotza harrotzen zaio, berpiztuta.

Ordua pasa da eta ez diote deitu. Patioan neskak bere ama besoartean estu-estu hartzen duela irudikatzen du, bihotz beroa harengana harrotuta. Amaren indara miresten du, jakinda baita berak duen kemena bere amari zor diola. Eta bihotza eskeronez beteta sentzitzen du, egunaren okertze gailenduz.

Axolagabetasunean, kartzeleroek dagozkien funtzioak betetzen jarraitzen dute. Begien aurrean duintasun eta maitasunaren lezio handia izan dute, baina ez dute ezer nabaritu, ezta ikasi ere ez. Nahi ez dutelako.

Cordoban, 2010ko irailean

Galder Cornago Arnaez
1979
Donostia

2007an atxilotua.

Fleury Merogis Maison d' arrêt femmes
9, Avenue des Peupliers
91.705 Ste. Genevieve des Bois Cédex

Y los sentimientos retenidos estos días
brotan de mis poros sin control,
pero no encuentran salida
y chocan
y rebrotan
contra estas cuatro jodidas paredes.

Y las lágrimas de impotencia
que me he tragado
y se han diluido en mí
y aunque intento deshacerme de ellas
se aferran a mí con fuerza.

Y el dolor de no volver a verte
me golpea,
me palpita,
me carcome las entrañas
me quema,
me estremece
me marea
y me lleva cual sonámbula
por este maldito laberinto sin salida.

LEHEN KARTZELA EGUNEAN
2007ko uztailak 31n

Sasiak eta hesiak

Horrelakoa da gure maitasuna,
sasien babespean jaioa,
zuhaitzen itzalpean hazia,
solas ttipietan garatua,
IRRI eta negarrez elikatua,
olerki eta gutun amaitezinez sustengatua.

Horrelakoa bilakatu zaigu maitasuna,
hesi amaitezinez inguratuta.

Baina indarrez hasiz,
askatasunean garatuz,
oroitzapen eta ametsekin elikatuz;
eta gure nahi sakonetan sustengatuz,
hesien gainetik pasa
eta elkarrekin hegan egitea
lor dezakegu!!

Creo que al cabo,
al fin, lo he logrado
Soñando tu abrazo
Volando a tu lado

-Silvio Rodriguez-

2007ko abuztuak 15ean

Barne kudeaketa

Ez da ebidentea bapatean emozio guzti hauek kudeatzea.
Hain dira ezberdinak euren artean.
Poza.
Mina, pena.
Haserrea.

Bihotzari bapateko subidoi hau ez zaio kabitzen.
Ta irri tontuneen bidez lekua egiten saiatzen da.

Malkoak galduak dabiltza,
Noiz atera?
Nola gauzatu?
Orain bai, orain ez, glup, barrura berriro.

Amorruak ez du bereizten
Noiz den ezintasuna,
Noiz den grina,
Noiz den kemena,
Ta bapatean tximista bat botatzen du
Noraezean,
Ta paretaren kontra talka egiten du
behin eta berriz,
Burua balitzan hormaren kontra doana.

Ez zaizkit guztiak gorputzean kabitzen
Denak nahi dute aske,
Irria algara isteriko bilakaturik sikiera,
Negar jario geldiezin baten akaso?
Edo ostia batean ukabiletik ihes egin,
Horrek malaostia askatuko balu…

Baina denak nire barnean gelditzen dira
Bata bestearekin nahasturik.

2009ko abenduaren 7an

Bizitza ostegunetik ostegunera

Beste ostegun bat zu gabe.
Beste aste bat irria eusten.
Beste aste bat muxuak gordetzen.

Ta nire gorputzak ez du ulertzen.
Eskutik laztanak eskapatzen zaizkit,
Ta ez zaituzte aurkitzen
Ta nirekin batera desesperatzen dira.

Ta nire begiek ez dute ulertzen.
Zu ikusi nahi zaituzte
Ta azaldu arren ez dute konprenitzen
Ta bere kasa dabiltza
Nirekin kontatu gabe
Euren itsasoan murgiltzen dira
Zure hutsunea agerian utziz.

Ta burua…
Razionala izaten saiatzen da
Baina ez du lortzen,
Ulertu nahi du
Baina ezin.

Ta bihotza…
Bihotza preso utzi dut,
Ez diot utzi adierazten,
Ez diot utzi amets egiten,
Ez diot utzi ezer egiten,
Kateatu egin dut
Eta zuri bakarrik utziko dizut askatzen.
Akaso hurrengo ostegunean.

2010eko abuztuaren 26an

Urtzi Gainza Salinas
1979
BIlbo

2006an atxilotua.

Fresnes - Maison d' arrêt
3, Allée des Thuyas
94.261 Fesnes Cédex

Gaurkoan be, aita

Gaurkoan be ein dot
eremuan eta denboran jauzia,
gomutamenean hega,
gure artean ugaldutako
distantziari
izeka eta trufa.
Gaurkoan be usaindu dot
zure eskuetako tabakoa,
nere masailetako malkoak
sikatzerakoan.
Etorten jatan usai bera,
nere baitan itsatsia geratu dana.
gaurkoan be ikusi dot,
zeure aurpegiaren haserrean
marraztutako ximur lerroak
eta inoiz baino gitxio
izutu nabenak.
Gaurkoan be amets ein dot
zure lastanegaz,
zure besarkadegaz,
lotsak usatu ebezanak,
baia gehiagotan maitasunean
atseginez jasoak.
Gaurkoan be ez gagoz elkar,
baia gaurkoan be,
egunero bezala,
zeu han eta ni hemen,
maite zaitut, aita.

Fusilaren kantua

Mendi gailurrean,
irria ezpanetan dotelarik,
haize hozkirria nau gorputzaren
beroaldia motelduten,
haize hozkirri goxua
eta haspereri sakonak doste,
barruko kutsadurak
hutsalduten.
Sai bat,
ari da neure buruaren gainean
biribil dantzan,
amildegia eurrean,
harkaitzarra oinpean
neure sustraiak balira lez.
Lagunaren izena oihukatu dot,
"hor zagoz??"
saiak baietz erantzun
eta azkenean malkoak diz
masailetatik behera lerra.
Pozaren pozez,
neure laguna,
anaia eta adiskidearen
duintasuna,
iparraren izar gidarian
bilakatuan,
hartu dotsat bere fusila
eta herriaren kantua
jarraituten dau neure ahoan,
bihotzean, zilegitasunean
eta neure fusilaren
gatiloan.
(Arkaitzen kantua iritsiko da gure belarrietara
beti)

Mugaz bestaldeko irria

Mendietatik ibili nintzan
gozamenean dantzan
denboren haizea, euria
eta eguzkiak elikatzen
nindoalarik.
ondikotz,
eremu eta denboraren gau
luziaren
amesgaiztoan, gatibu nintzen
bilakatu.
Ez haizerik, ez euririk, ez
eguzkirik,
zoramenean.
egunak urteetan
eta urteak egunetan
ziran paperean aldrebestu.
Etsipenaren jomuga askotan,
baia borroka irrikaren itxaropen
argi distirak,
errime eutsi eutzon jazarpenari
garaipenaren bizigaiaz hornituz.
Guda eta maitasunaren
domeinuen menpe, duintasuna eta
zoriontasunaren hazia,
da oinazetik hasi
eta sustraitzen,
geure euskal herri kuttuna
amalurrean
eta hizkuntza zaharraren
kantuan bezala.
Amesgaiztoa hil ein da,
eragindako etsipen beldur
ilunak,

haizearen fereka.
Euriaren hozkirritasuna
eta eguzkiaren beroa, atoan
eustazanean errendatu.
Irri distiratsu baten argia
erakarri nindun barriro
borroka irrikaren ildo
askatzailera.

Jokin Urain Larrinaga
1959
Mendaro

1986an atxilotu zuten.
Hainbat liburu argitaratu ditu: Izaina (AAB,1990), Adlotse(Txalaparta,1992), Gatibu jaio nintzen (Susa, 2000) eta Errotaria (Susa, 2006).

C.P. La Moraleja
34210 Dueñas
Palencia

Bernard Etxepare

Mosen Bernat iakin bahu gauza nola jinen zen
Bearnora gabetarik egon ahal inzanden.

Heldu behar duien gauzan ezta eskapazerik
Nik ogenik eznuiela hongigitez bertzerik
Bidegabek haritu nu bide eznuien lekhutik
Erregeri gaizki saldu gertuz ogen gaberik.

Iaun erregek mezu nenzan ioanengion bertarik
Gaizez lagola enzun nuien bana nik ez ogenik
Izterbegier eneien malizian lekhurik
Ioan nendin enagien ogen gabe ihesik.

Balinetan ioan ez aninz ogenduru ninzaten
Ene kontra falseria bethi zinhetsi zaten
Iustizian enzun baninz sarri ialgi ninzaten
Haren faltaz hasi nuzu iaugitiaz doluzen.

Bertzen gaizaz zenzazia zuhurtzia handi da
Izterbegi duien oro nitan be di gaztiga
Abantallan dabilela albailedi segura
Gaiza apart egoiztea bethiere hobe da.

Ni gaixoa etsaiari nihaur jiniz eskura
Ene unsa eginak ere orai oro gaiz dira
Haren menian ezpanengo nik nukeien zuzena
Mirakulu banagi ere orai ene ogena.

Falsu testimoniotik ezin ehor begira
Halaz kondemnatu zuten ieinkoa ere hilzera
Bekatore gira eta mira eztakigula
Balinetan bide gabe akusatu bagira
Pazienza dugun eta ieinkoak gizan aiuta
Malizian dabilena berak diro mendeka.

Iangoikua zu zirade egiazko iujia
zure gortean bardin dira handi eta xipia
Nork bait ere egin deraut malizia handia
Haier hura othoi barkha niri balia egia.

Iangoikoa zuk begira etsaiaren menetik
Nik eniak badakuskit ene gaizaz bozturik
zure eskuiaz dakuskidan heiek gaztigaturik
Ene gainian eztagiten uste duten irririk.

Iangoikua egin dizit zure kontra bekatu
Haiez nahi enuzula othoi heben punitu
Erregeri dakidala nik eztizit faltatu
Zeren egon behar dudan heben hanbat gatibu.

Zuganako hutseginez nahi banuzu punitu
Errege ela bertze oro ene kontra armatu
Gogo honez nahi dizit zure egina laudatu
Eta etsaiak didan pena pazientki haritu
Nahiz heben pena nadin arima den salbatu
Haiek zer meretsi duten zuhaurorrek ikhustzu.

Penak oro jiten dira ieinkoaren nahitik
Eta berak permitizen oro hobenagatik
Agian hula ezpanango hil ninzanden engoitik
Ene etsaiak galdu ustian ene hona egin dik.

Berak bazu hil dirade ni are nago bizirik
Hongi egin uste baitut ohorezki ialgirik
Gaiza nola hona ere iauginen da bertarik
Gaiz ekhusi eztuienak hona zer den eztaki.

Hongi egitez gaiz sofrituz behar dugu salbatu
Pena eta miseria nik enuien dastatu
Orai dakit iangoikuak enu nahi damnatu
Heben ene penazera zaidanian orhitu
Urhe hunak behar dizi suian unsa purgatu.

Bere nahi ezpanindu eninduken punitu
Aitak bere haur maitia gaztigatu ohi du
Bihi hunak gorde gabe behar dizi xahutu
Iangoikoak nizaz ere hala agian egin du.

Mosen Bernat pensa ezak kartzel hori gaiz bada
Nonbait ere ifernuia are gaizago dela
Heben hik badukek bana haiek ez nork konsola
Penak heben fin dik sarri haienak ez sekulan.

Batre minik heben eztuk lekot ialgi nahia
Han direnek bethi die suian pena handia
Pena handi izigarri ezein pausu gabia
Hartzaz orhït adi eta dukek pazienzia.

Bertzen gaztigari inzan orai adi gaztiga
Pena honez orhit eta hangoa ezak kojita
Hebengoaz bertzekoa albaheza eskusa
Unsa enplegatu dukek heben eure denbora.

Hor balego gaztigairo ihaurk bertze guzia
Bada orai gaztigczak aldiz eure buria
Kirisailuiari nola hiri hel eztakia
Bertzer arg¡ egin eta errazen dik buruia.

Hiri egin badaraie bidegabe handia
Ieinkoari gomendezak eure gauza guzia
Hark orori emanen dik bere meretsituia
Gaizkigiler pena handi pazienter gloria.

Eztazala gaizeriztez damna heure buruia
desiratuz gaixtoari hel dakion gaizkia
Ieinkuari egiten duk iniuria handia
Hura borrer egiten duk iuje eure buruia.

Zertan iuia hik baitazak eure izterbegia
Hartan kondemnazen dukek ihaurk kure buruia
Eta hartan eztakidik eskusarik balia
Erakustak ehonere nor den ogen gabia.

Iangoikua orai dizit egiteko handia
Hiri honetan eriozez hilzen duzu jendia
Gathibutan hil enadin gizon ogen gabia
Osorik othoi ialgiteko zuk idazu bidia
Izterbegiak eztagidan gibeletik irria
Ogenduru zuian eta han galdu dik bizia.

Libertatia nola baita gauzetako hobena
Gathibutan egoitia hala pena gaizena
Ni bezala eztadila othoi ehor engana
Ez etare hiz orotan fida ere gizona
Iangoikua zuk begira niri ere zuzena.

Amen.

Joan Amendux

"Hemen natza ortzirik, noizbait gozo eiritzirik.
Herioak ustegabe doloroski egotzirik.
Ene arima Jaungoikoagana beldurreki partiturik,
Lagungabe bide luzean peril asko pasaturik,
Onrak eta onrak bertan munduak edekirik.
Plazerak azke (…) atsekabe bihurturik.
Ahaideak eta adiskideak urte gutiz atzendurik
Ikusten tut isuririk, harresi guzia deseginik,
Argi gabe, ilunbetan, ustel eta kirasturik.
Nigar begi bapederak bere aldiaz oroiturik:
Nihork ere izanen ez du nik ez dudan partidurik
Ene, arima duzuen gomendatu, garitatez mobiturik.
Zarraizkidate guzi (…) bertan hitzok ongi notaturik.

Josafaten baturen gara judizioan elkarreki;
Bitarteo lo dagigun, bakea dela guzieki."

Iztuetaren penak eta amoreak

Maite bat maitatzen det maitagarria
Begi ederra du ta guztiz argia;
Daukat urruti,
Bainan ezin kendu det buruti
Aren itxura;
Saldu albaliteke pisura,
Urrearen truke
Nork erosi faltako ez luke.

Ogeita lau leguaz nago aparte,
Bitartean ba daukat miloi bat ate
Guztiak itxirik
Nai arren ezin egon ixilik
Beti negarrez,
Nere maite maitearen galdez;
Otedan bizi,
Biotz-biotz nereko Kontxesi.

Egunez argi gutxi, gauen ilun,
Konsuelorik ez da neretzat inun
Maitea gabe;
Egin ote nadin aren jabe
Oroitutzean,
Zenbait pena nere biotzean
Ditut igaro;
Maite det eta ez da milagro.

Ay hau bakardadea eta tristura!
Nire biotz gaxoa ezin piztu da,
Ain dago ila;
Beti dabil konsuelo bila,
Bere artean
Banengo maitearen aldean,
Ordutxo biko,
Pena guzitak lirake ilko.

Nere maitea zuzaz ni oroitzen naiz
Egunaz ere baita gauetan txit maiz,
　　Lotan ere bai;
Zu ikusitzera nik joan nai;
　　Libre banengo
Or nintzake egun bigarrengo,
　　Naiz orduan il,
Ez nuke izango batere min.

Leneko gau batean egin det amets,
Bainan pentsamentuak beti al rebes
　　Irteten dira;
Ustez nengoen zuri begira;
　　Maite polita
Kofrearen gainean jarrita,
　　Kontu kontari
Nai nuen bainan ez nintzen ari.

Maite nerea daukat beti gogoan:
Ay orain banengo ni aren alboan
　　Inoiz bezela!
Jaunak amets du kunpli dezala,
　　Balitz kanbeni,
Kontsueloz ilko nintzake ni
　　Nire ustean,
Maitetxoaren biotza ikustean.

Nere maite polita ez da zer etsi,
Bigar ez bada ere or nazu etzi
　　Lengo lekuan,
Allegatutzen naizen orduan,
　　Ay ura poza
Nere maite maitetxa biotza!
　　Zuri begira,
Pena guztiak aztuko dira.

Bordatxuri

I
Mila zortzi ehun eta hamabortzgarrena
Ni Hazparnen preso hartu nindutena;
Plumaieneko premu orok dakitena,
Galeretan higatu beharko naizena

II
Kantatzera niazu alegera gabe
Ez baitut probetchurik trichtaturik ere;
Nehun deusik ebatsi, gizonik bu gabe
Sekulakotz galerak enetako dire.

III
Ala zorigaitzeko premu izaitea
Horrek eman baiteraut bethikotz kaltea,
Aitari gald'eginik sorzeko phartea,
Galeretan eman nau, hau da ene dotea.

IV
Ene aita da gizon kontsideratua.
Semia galeretan du segurtatua,
Nun nahi othoitzean belaunikatua,
Saindu iduri, debru madarikatua.

V
Ene lehen kusia Cadet Bordachuri
Fagore bat banuke galdatzeko zuri
Ongi adreza zaite ene arrebari,
Ene saltzeko zombat ukan duyen sari

VI
Aita aintzinian eta arreba ondoko,
Osaba buryes hori diru fornitzeko;
Ez ordian enetako bi sei liberako,
Galeretan bederen leher egiteko.

VII
Elizan sartzen dira debozionerekin
Iduriz badohazila saindu guziekin
Beren liburu eta arrosrioekin,
Debruyak phesta onik einen du heyekin.

VIII
Zortzigarren bertsuya aneyarendako,
Konseilu bat banikek hiri emaiteko;
Ontsa goberna hadi, ez zauk dolutuko;
Ni baitan etsempluya errech duk hartzeko.

IX
Zuri mintzo nitzalzu, ai Aita ziiharra,
Ardura dudalarik begian nigarra;
Zure eta ene arraza Bordachuritarra,
Galeretan naizeno ni bainaiz bacará.

X
Kantu hauk eman ditut Paubeko hirlan,
Burdinez kargaturik oi presundegian,
Bai eta kopiatu dembora berian,
Orok khanta ditzaten Hazparne herrian.

XI
Hok eman izan ditut ez changrinatzeko,
Ene ahide adichkidek kuraye hartzeko,
Eta partikulazki, aita, zuretako,
Kantu hok aditzean semiaz orhoitzeko.

Etxahun Barkoxe

Echahonen çorthia içanda ayphatu
mundian gutik dila haboro sofritu
ene persona tristic horacin causat
aitetamer beyninçan haurreti huguntu
edertarçunez prauve, ninçalacos sorthu
Hogueta hamarrenin, hileri cachotin
Juge hayer gorderic, sabrekaldic burin
Jaunliera ceritan, jabeki bat eguin
Eta ez ikhoustera, ihour utci ordin
Loxas eguicin crima jugec lecen jakin

2010/10/18

Oier González Bilbatua
1979
Durango

2005. urtean preso hartu zuten.

VILLEFRANCE - SUR - SAÔNE - Maison d´arrêt
Rue Lavoisier
B.P. 482
69.665 Villefrance - Sur - Saône

I have a dreamm...

J'ai un rêve...
Mais je n'arrive pas
A me souvenir
J'ai un rêve...
Mais la nuit
On ne sait plus où elle va finir.
J'ai un rêve...
Et pour le récupérer
Je ne sais où je dois aller,
Pour m'envoler,
M'évader
De ce putain d'enfer.
J'ai un rêve...
Mais pour le réaliser
Il vaut mieux s'eloigner
Des barreaux
Des carreaux
Et des cris de corbeaux.
J'ai un rêve...
Mais à quoi ça sert
Si je ne peux le concrétiser.
J'ai un rêve...
Un putain de rêve
Mais voilà le problème,
Sous ce ciel blême,
J'ouvre mes yeux
Et il n'y a pas de matinée joyeuse.
Qui avait parlé
De lendemains radieux ??????????

Villefranche sur Saône, juin 2010

Denbora

Goizeko 7ak: atearen irekiera.
7:30ak (asteartea, osteguna edo larunbata bada soilik): dutxa.
10 minutu.
Turnoaren arabera
eta lehena tokatuz gero, goizeko 8etan patioa.
Bigarren turnoa 10etan.
Ordu bete eta 30 minutu zirkuluan bueltaka.
11:30etan bazkaria.
12:30etan, ateak ongi itxiak daudela ziurtatu ondoren funtzionarioa badoa.

Txakur aldaketa.

13etan arratseko funtzionarioaren erronda. "Bonjour".
Lehen turno izan ezkero 14etan patiora,
bigarrena 16etan.
Ordu bete eta 30 minutu
bueltaka, bueltaka, bueltaka.
Arratseko 15etan korreoa.
Postontzia, hutsik dagoen kabia herdoildua.
17:30etan afaria.
18:30etan arratseko funtzionarioa badaoa.

Txakur aldaketa

Erlojuaren orratzetatik urkatu gaituzte.
Orduek haragia urratzen didate,
minutuek bihotza zatitu.
Tik-tak, tik-tak.
Segundo bakoitza
arrantza bat
erraietan.

Denbora libratu behar dugu.
Arantzak erauzi,
bihotz zatiak kolatu,
haragia josi,
ukatzen gaituen soka moztu.
Denbora libratu.
Aztikerixek eitteko astixe jarein.

Villefranche sur Saône, 2009ko azaroa

Kontrabandoan igarotako hitzak

Artega dago mutila, bezperan berandu xamar arte aritu da letrak juntatzen.

Mahaiko lanparatxoaren argipean luma eta papera. Tinta beltzaren jarioaz, txuria zen espazioa hitzez zipriztintzen ari da. Bonbillaren argiak, mahaia eta mutila bera zirkulu horixka baten baitan biltzen ditu. Antzokiko argiek, antzezlea taularen gainean zirkulu batean biltzen dituen bezalaxe. Ziegako taularen gainean, mutila, bere trama propioaren antzezle. Eta badirudi argi horren baitan, aldiro, bere mundutxo propioa eraikitzen duela. Mahaiaren gainean: ur botila; azken tragoa falta zaion tea, kristalezko marmelada poto batean; orrien nahaspila; urdin koloreko gutun azala; argazki bat.

Baina hori atzo izan zen eta gaur artega dago. Lo faltagatik begiak kiskaliak dituela senti dezake, gauean letra artean ibiltzeak eragiten duen erredura. Hala ere, nekearen gainetik, paperean bere baitako munduaren zatitxo bat askatu duelako atsegina. Bere territorio intimoaren zentimetro karratu parea gutun azal batean gordeta. Galtzarbeetan disimulatua daukan gutun azal urdinean, bere baitako eremu horren zentimetro karratu parea.

Artega dago mutila beraz, gainontzeko presoen antzera lokutorioetara jotzeko atea noiz irekiko den zain. Gorroto du ixtante hau, ez daki zein funtzionariok irekiko duen atea, lokutoriora sartu aurreko miaketan estu hartuko ote duten ere ez daki. Galtzarbeetan daraman mundu miniaturazkoa kanpotik ikusten al da? Ziur da ezetz baina... Atean azalduko den txakurrak mutilaren urduritasuna usnatuko al du? Latex aseptikoz jantzitako eskuek, gerrialdea miatzean, praka eta alkandoraren tolesdura artean gordetako gutun azala nabarituko al dute?

Atea ireki da, uniformatua esku txuri aseptikoz armatuta preso ilararen buruan paratu da. "Monsieur Gonzalez, box 1!". Mutila ilaran doa pausuz pausu eta ez daki astiroegi mugitzen ote den edo arinegi, zelatatuaren ezinegona. Atea, uniformatua, bere eskuen mugimendu mekanikoa bizkarretik behera, gerrialdea, praketako poltsikoak, txorkatilak... ondo, badoa,

miaketa atzean utzi du. Lokutoriora sartu aurreko azken pausoak. Lehen besarkada, muxuak, laztanak eta aspaldi irakurritako hitz batzuen oihar–tzuna iritsi zaio bere barrunbeetatik mutilari. Kontrabandoaren zakuetan bidaiatzen duten hitzak, bestela iristen diren hitzen antzekoak dira, mezu bertsua daramate, baina lerro arteak intimoagoak dira, hitzen arteko espazioa infinitua bihurtzen da hala. Idatzi duenaren eta irakurriko duenaren, bi bien ametsak kabitzen dira bertan. Letren Artean amets egiteko espazio infinitua.

Laztanetik laztanera, galtzarbetik galtzarbera, espetxetik kalera, kontrabandoan askatuko den gutun.

"Les histoires sont des lettres. Des lettres envoyées à n'importe qui, à tout le monde. Mais les plus belles sont faites pour être lues par quelqu'un en particulier."

John E. Wideman. "Damballah".

Villefranche sur Saône, 2009ko abendua

Pariseko kaleetan barna begietako minez

Poliziak ea esku-burdinak estuegi dituen galdetzen dio mutilari. Ixtante bat lehentxeago biluzarazi, ahoa irekitzeko eskatu, besoak altxatzeko esan eta trantze horretan atzealdea hobeto ikusteko buelta bat emateko agindu dion polizia ber-berak. Izan ere, politesse polizialaren arabera, kateak ahalik eta erosoen jantzita eraman behar ditu presoak. Kontuon inguruan hausnarrean abiatu da epaitegira eramango duen furgonetarantz. Hiru dira bidaiariak eta hiruak dituzte eskuak bizkarraldean lotuak, uniformez gainezka doan espedizioa. Beste bien azal ilunak eta beraiekin osatzen duen ilarak, aspaldiko Napartheid aldizkariaren irudi hura ekarri dio gogora: hiru itzal, hiruak katea lodiz lotuak, biren ile kizkurraren kontrastean hirugarrenaren txapela eta sudur luzea. "Soweto Euskal Herria baino hobeto". Ordutik udaberri nahikotxo igaro badira ere, egoerak berdin xamar dirau, garai berriek subtilitate berriak badakartzate ere, azal-kolore ilundunak eta euskaldunak katea astunetan endredatuak.

Furgoiak sei zelula dauzka bere barnean, bertan, ozta-ozta esertzeko espaziotxo bat geratzen zaio mutilari. Eskuak bizkar aldean lotuak dauzkanez, zuzen esertzea ere ezinezkoa zaio eta belaunak estu-estu kabitzen dira kaxan. Guti goiti-beheti hilkutxa baten traza dauka kontuak, etzanda joan beharrean hala moduz eserita doa eta giltzapean egotearen sentsazioa kirioetaraino hondoratu zaiola nabaritu dezake. Esku-burdinak, espazio txikia, epaitegira bidean preso izatearen herstura, errealitate fisiko erabatekoa bihurtu da. Zelularen atea gerritik gora burdin-sare batez osatua dago, gaitz erdi, bestela "hilkutxa" metafora edo errekurtso literario bat izatetik, zinezko substantibo izatera pasako litzake. Substantibo itogarria. Hala ere, presoak ongi daki burdin-sare honen presentzia ez dela errepublikar humanitate onbera baten ondorioa, hau ez dela bertan egotea suertatzen zaion gajoa aintzat hartuta eraikitako kutxa. Presoak uneoro zaindariaren begiradapean egon behar du, hori da giltzapearen legea.

Abaila batean abiatu dira beraz, sirena adar hotsak bere baitan biltzen du espedizioa. Marru erdiragarria Pariseko kaleetan barna, goiz alba aspaldixko pasea bada ere, "il est cinq heures, Paris s'eveille" irratian sarri

entzundako kanta baten lehen hitzak mutilaren barne-muinetan dantzan hasi dira. Argi urdinak dituen despertadoren mugikorra joka eta hiria bigarren aldiz esnatzen ari da. Gidaria ezker-eskuin juramentuak banatzen dabil, aginteari bide eman, eta polizia agintea da. Baina goizeko lehen orduetako kotxeen kaosak, Parisen, bere lege propioak ditu, aginte gutxi beraz, polizia gehiegi badago ere. Furgonetak abaila (haien) neurriz kanpo motelduz gero, segidan makadamera jaitsiko dira armak eskutan, armak eskutan aginteari bidea egiteko. Lanera-bidean, kafetegiko kontuarrean dagoen horri croissant-a kontrako eztarritik joaten al zaio, halako estanpa baten aurrean? Sirenaren adar hotsa, oihuak, metraileta eta eskopetak, agintearen potreta egunari ongi etorria emateko.

Mutila, kutxan eserita, agintearen martxak eskaintzen dituen irudiok suma ditzake. Kafetegiko kontuarra, croissant-a...errealitatearen alde horretan bizi zen duela zenbait urte, atzo. Gaur eserleku pribilegiatua egokitu zaio, ez da beti hala izaten baina gaur kutxaren parean furgonetaren atze aldeko atea dauka. Poliziak metraileta eskuetan bertatik salto egiteko prest, honen sorbalda gainetik atearen leihoak eta leihotik Pariseko karrikak ikus ditzake mutilak. Udazken kolorez jantzi dira inguruak, semaforoetan zain den jendearen jantzietan marroi ilunak nagusi, han hemen ageri diren zuhaitz bakanen tonu bertsua. Une batez, zigi-zaga dabilen patinatzaile bikotea furgonetaren abiadara eutsiz aurrera doa, zenbait metro elkarrekin egin eta beste norabide batera jo duten arte, badoaz. Burdin-sare artetik mutilari iristen zaizkion irudiak, fotogramak bailiran, furgonetaren abiada berean aldatzen doaz. Souvenir denda baten atarian kapa eta antifaz beltza jantziak dituen manikia, plastikozko super-heroia. Notre Dameko zubiaren semaforoan katedralaren beraren zantzuak, dorre baten kantoia, argazki kamerez apaindutako turista saldoak. Mutilak burdin-sare artetik irensten dituen fotogramek iraganeko paisaia ezagunak osatzen dituzte. Paris poliziaren furgonetatik ikusteak begietan min eman dezake, baina ikuspegiak merezi du.

Burdin-sare artetik, begiak oroiminez blai.

Villefranche sur Saône, 2010 abuztua

Troyako usoa edo pax romana

Ederra zuen itxura, metalaren dirdirak harriduraz betetako keinuak zabaltzen zituen inguruetan. Bukaeraren atarian aurkitu genuen goiz alban eta batek baino gehiagok halako lasaitu antzeko bat hartu zuen; "azkenean", "bazen garaia", "merezi dugu" eta estilo bereko perpausez bete ziren ahoak. Bukaeraren atarian geunden, eta zer egokiago hegazti itxurako ikur kolosal hau baino? Nondik iritsi zen ezin esan genezakeen, norbaitek "Herriak ekarri du!" aldarri egin zuen, baina dena esan behar baldin bada, une hartan Bukaeraren atari inguruak hutsik zeuden. Eta hala ere denok sinetsi nahi genuen, "bai Herriak soilik eraiki lezake tamaina honetako zera bat", nork bestela? Quand même, Bukaeraren atarian geunden "merezi" genuen, urteak igaro genituen guk antzeko zerbaiten bila, gure gurasoek egin bezalatsu eta haien gurasoek eta haien gurasoen gurasoek; egia esan mendeak paseak ziren Bukaeraren atarira bidean, pausoz pauso, eta iritsi ginen bai, joder baietz.

Mokoan itsatsia zuen olibondoaren erramuak, bertaratu ginenon inkontzienteetan kili-kili egin zigun. "Columba Ordinaria" esan zuen taldeko latinistak. Bai, Bukaeraren atarian ginen eta gurdi baten gainean paratuta, uso erraldoi baten estatua aurkitu genuen. "Gure garaikurra!" oihukatu zuten taldeko ausartenek, "Garaipenaren Enparantzan, erdi-erdian, jarriko diagu!" bota zuten beste zenbaitzuek. Goiz alba hartan nekeak bat-batean desagertu ziren, irudiaren dir-dira denen begiradan islatu zen, liluraz lepo irrifar aldra bat osatu genuen. Gurdiari sokak lotu eta tiraka hasi ginen, Etxera bidean. Norbaitek kantatzeari ekin zion, hura zen bozkarioa, zinezkoa, Etxera bueltan gindoazen Garaikurraren pisua lepoan hartuta. Halaz ere itzulerako bidea erraz egin genuen, inolako oztoporik aurkitu gabe, tiraka generaman ikur erraldoiak bidea zabalduko baligu bezala.

Azkenik beraz, Etxera iritsi ginen, eta "columba ordinaria" oliba erramu eta guzti, "Garaipenaren Monumentua!", Garaipenaren Enparantza erdian paratu genuen. Ez sinesteko moduko alaitasuna zabaldu zen zoko-moko guztietara, eta ase arte edan eta dantza egin ondoren Usoaren abaroan etzan nintzen, irrintzi alaien erdian. Gorputza seko errendituta baina bozkarioz gainezka, begiak itxi nituen, Garaipenaren Enparantzaren erdian, iluntzea zen. Bukaeraren Hasiera.

TROYA-KO USOA

. edo PAX ROMANA .

Ibon Muñoa Arizmendiarrieta

Eibar

2000an atxilotua.

Centro Penitenciario Puerto I
Ctra. Jerez-Rota, km. 6,4
Apdo. 555
11.500 Puerto de Santa María
Cádiz

Amaren argazkiak
laztantzen ditudanean
haurtzaroko inguruak
oroimeneko mihisean
marraztuta dakuskit.
Arrajola eta Kurutzekua
zurekin ezagutu genituen
“Haize ona osasunarentzat”
zenioen.
Umeek dakiten eran
kerizpea atzetik
bizipoza aurretik
aldapan gora
hasten ginen.
Goitik genekusan
Eibarren bazirela
txoko gurariak.
Garai ilusiogarriak
atzean geratu ziren,
autopistak Kurutzekua
galdu zuen
ohituren aldaketak
baztertu Arrajola.
Ziegako bakardadean
zure akorduan
dihardudanean
orduko zirrara
berpizten zait
aurkitzen zaren
bihotz barrenean.

Urkiolak agurtu nau
Anbotok lagundu
gure sukaldean
betiko usain abegikorra.
Aitta laztan bat
amatxo bi zirri
malkorik gabe
baina hunkituta,
maitasun dizdiraz
jantzi dira begiak
aspaldiko ilusioa
eztitasunez mamitu da
Agurtzerakoan
atseginez entzun ditugu
atariko lagunen mezuak
samurki, liluraz
elkar besarkatu dugu
gauero bezala
urrutiko ziegan
ametsen txokoan.

Valentzia III espetxetik aitaren enterrutik bueltan.

Espetxetik
ekarri ninduten
txikitan
oratzen zenidan
bezain samur
hartu ninduzun
eskua.
begiak
ireki zenituen
berehala batzeko,
ez ninduzun
ezagutu.
zorionez
atseginez
onartu zenizkidan
ferekak eta laztanak,
umoretsu
irrifartxo bat
marraztu zenuen.
Zure larrua
leunki ukituz
gogora zetozkidan
Elgetako esnezaleen
kamioian
sartuta zegoen
haurra,
ezkontzako egunean
hain alaitsu
sentitu zen
gizona,
laguntzeko
beti prest
egon den aitxa.

Amaren
urtebetetze egunean
Giza eskubideen datan hil zara.
Hiletan
guztiz hunkituta
zure gorpuazetzan
aldera
begiratu dudanean,
gure baitan
ezti-ezti
goxo-goxo

amakin zaudela
jakin izan dut.

Enkarteladan elkartzen direnentzat

Txaltxa-Zelai aldera
Begira
hamarnaka asmo eder
zutik Untzagan.
Amets askatzaileen
habia
maitasunaren adierazpen
argia
elkartasunaren islada
garbia
Gure bizipoza zarete
gozotasunez
zuen esku samurretan
batzen garenean
Amnistiaren lerroan.

Mentxu Jokinen amari zuzendua

Bihotzean goxo-goxo
sentitzen zaituztet,
euskaraz dagidanean
taupadaka diharduzue
eguneroko jardunen
ardatza baitzarete.
Zuen irrifarrea
maite nuelako
gozatuz segitzen duzue
mendien lurrinaz
itsasoaren kresalaz
erreken gurguriaz
askatasunaren egunean
zuentzat ospakizunen ohorea.
Gure bihotzetan aterpetuta zaudeten
etxekoak, aspaldiko adiskideak
ilunabarrean
zuekin elkartuko gara
Ama-Lurraren zelaietan
maite gaituztenen
bihotz samurretan.

Ikasturea hastear da
Esan dute irratian,
abuztu utzita atzean
sartu gara irailean,
berehala hedatuko dira
haurren algarak eskolan
goiztiarren urratsak kalean
bozinak errepidean,
eguneroko jardunen hotsa
pizten ari da herrian.

Politiko profesionalak
Ederki zeuden hondartzan,
ahaztuta ohiko batzarrak
botata etzaulkietan,
bulegoetan zain baitituzte
besaulkiak kerizpean,
badatoz patxadaz irrifartsu
larrua dute beltzaran,
joan zirenean bezain garratza
dirau gatazkak geurean.

Gatazkak azken hamarkadetan
ez du atsedenik hartu,
ongi daki hori espetxeak
zigortu duena estu,
jaio ginenetik ez baitugu
inoiz hemen ezagutu
lasai itzuli oporretatik
askatasunaz gozatu,
etengabeko ikasturtea
ez da oraindik bukatu.

Ikasturtea polit hasi da
bakean Euskal Herrian,

hiriburua ezarri dugu
Iruñea zaharrean,
euskaraz edonon dantzut pozik
goizeko osteratxoan
ametsetan bizi izan baitut
goxo ziegako ohean,
espetxerik gabeko irailak
behar ditugu geroan.

Kide bat jipoitu dutelako
gosez nago espetxean,
gertuko bidegabekeriak
jartzen zaitu ekinean.
Giharrak erabat motelduta
Jateko grina gogoan
bizipoza urrituz joan baitzait
pisua galdutakoan,
gabezia zer den ikasi dut
baraua egiterakoan.

Afrikako larrainak, labore
Bakarrez erein ditugu,
Asiako ganbara oparoak
berekoitasunez hustu,
Amerikako oihan hezeak
gupidagabe suntsitu.

Elikatzen ez diren herriak,
zerbait jan dute helburu,
beren borroka bakarra baita
sabela ongi asetu.

Jakitun bainaiz sasoia laister
eskuratuko dudala,
ugari dago
jan ezinik dabilana,
jaiotzatik gosearen mende
uzkurtuta bizi dena,
gure munduak murriztu die
tak, bizi-itxaropena,
kontutan eduki barik Ama
denon kabia dela.

Zentzuz kontsumituko bagenu
Argi leudeke buruak
Bihotzak eskertuko liguke
Jango lule gosetiak,
kemenez galdeko lizkioke
handi-mandiari lurrak,
iruzurrez, bortxaz, mendeeten
bildutako ondasunak.

Elika dezagun kontzientzia
iraun dezan utopiak.

Oier Andueza Antxia
1975
Durango

2001. urtetik preso

C.P.TEXEIRO
Ctra. Paradela s/n
15310 Curtis
A Coruña

Joxe Karlos Apeztegia Jaka
1964
Iruñea

1992 urtean atxilotu zuten.

C.P. Puerto II
Carretera Jerez-Rota, km. 5,4
11.500 Puerto de Santa María
Cádiz

Abenduaren 24a

Abenduaren 24a zen Madrilgo espetxe batean, eta egun horretan presoek afari hobea (edo ezberdina behintzat) izan zuten. Afaldu ondoren, preso guztiak ziegetan hertsirik zeuden, gehienak telebista ikusten ari zirela.

Egun horretan ,urtero bezala, Espainako erregeak (Francok jarritako hori, hain zuzen ere) bere erreinuko egoeraren atal guztiak edo garrantzitsuak (politika, economia…) jorratzen dituen diskurtsoa telebista eta irrati guztietan, aldi berean, irakurtzen du gaueko bederatzietan; beste batzuek idazten dioten diskurtsoa, alegia.

Hau oso une garrantzitsua omen da eta hurrengo egunean Espainako politikari gehienek erregeak esandaka goraipatuko dute, erregea maitagarria izateaz gain, zinez jakintsua baita. Bera omen da Espainako demokraziaren zaindari paregabea, Euskal herritarrei beraien geroa erabakitzeko eskubidea ukatzen dien democracia bikaina, hian zuzen ere, eta une hau begirune eta arreta handiz bizi behar omen da.

Halako batean, Espainako erregea eta beste batzuek idatzitako hitzaldia irakurtzen hasia zenean, ziega batetik preso arrunt batek eginiko garraxi ozenak patio osoa hartu zuten:

- Baina zer da hau? Zer gertatzen da hemen? Telebista izorratu da! Tipo hau kate guztietan azaltzen da!

Preso arrunt horrek ez zekien Espeinako erregea nor zen, edo bost axola citación. Berak telebista ikusi besterik ez zuen nahi, baina kate guztiak berarentzat harturik zituen tipo horrek ez zion uzten. Eta haserre zegoen.

Arruntaren garraxiak entzun zituzten euskal preso politikoak barrez lehertzen hasi ziren.

Erregearen zorabioa

Zenbaitetan Euskal preso politikoek kanporako eskutitzetan Espainako erregearen zigilua buruz behera jartzen dutenean, erregea zorabiatu egiten da, eta horregatik kartzelariek ez dituzte eskutitz horiek onartzen, erregea zorabiaturik dagoelako.

Zorabioa galerazteko zigilua zutik jarri beharko da, hori baita modu bakarra, jakina.

Hauxe da kartzelari batek kanporako eskutitzean Espainako erregea zigilua buruz behera jarrita bidali nahi zuen Euskal preso bati esan ziona, zigilua buruz behera jarriz gero erregea zorabiatu egiten zela.

Ez da segurua, bina zurrumurru baten arabera, espetxeko sendagileen baztordeak jakinarazi omen zien kartzelariei erregea zorabiatu egiten zela zigilua buruz behera jartzen denean eta, ziurrenik, osasun arrazoien izenean zigiluakzutik jartzeko agindu zorrotza zabalduko zuen.

Espanako erregea adinekoa dela iantzat hartu behar da eta ez zaio komeni buruz behera egotea, eta Euskal presoek zenbatetan ez dute hau ulertu nahi, eta demokraziaren alde izugarrizko lanak egin dituen Franco oinordekoaren zigilua gaizki jartzen dute nahita. Hau da hau kende maltzurra!

Beraz, erregearen Osasuna biziki garrantzitusa denez Espainako kartzelariek Euskal presoek bidalitako eskutitzetan errgearen zigilua buruz behera agertzen denean, eskutitzak atzera bidaltzen dituzte. Osasuna kontu serioa da eta ezin da horrekin jolasean ibili.

Hau del aeta, neurri hau indarrean jarri zenetik Espainako erregearen osasunak hoberantz egiten duela ziurtatu daiteke, nolabit, erregea ez baita lehen beste zorabiatzen, zorionez. Eta demokraziaren alde egiten duen lan garrantzitsua eta paregabea egunero arazorik gabe burutzen jarrai dezake, zorrabio arriskurik ez baitago orain.

Espainako erregearen zigiluak zuzen jarri behar dira eta kitto, Osasuna ez baita soilik futbol talde baten izena, esan beharrik ez.

Ziurrenik

Euskal preso politikoa Madrilgo espetxe batean zegoen eta bertako kar–tzelariekin izaniko liskar baten ondorioz, Galiziako espetxe batera zigor-turik bidali zuten, lehen graduaren lehen fasea ezarririk.

Kartzelariek presoa jipoitu egin zuten Madrilen, baina presoak eraso egin ziela salatu zuten eta euskal presoa auziperatu egin zuten, kartzelarien aurkako erasoa leporaturik.

Egia esanda, ha ez da batere kontu harrigarria, ohiko kontua baizik, era-sotzaileek erasoa pairatu duela salatzen baitute beti, gertaerak alderantzi-zkoak izan balira bezalaxe. Baina honek ez du inolako harridurik sortzen, Espaina aldean ohiko kontua baita. Acebesek ere 2004ko martxoan Ma-drilen izaniko erasoak euskal jendeari leporatu zizkion, eta honek ere ez du gezurrik esaten, bera zintzoa eta jatorra baita. Eta, jakina, gezurretan aritzea bekatua da.

Beraz, euskal presoa ederki jipoitu ondoren, Galiziara bidali zuten eta bertan lehen graduaren lehen fasearen onurak "gozatu" ahal izan zituen. Lehen gradua preso bati ezar dakiokeen sailkapenik zorrotzena da, bizi-modua eta eskubideak zorrotz murrizten zaizkio. Kartzelariek bortitzago edo zakarrago jokatzen dute, presoaren ziega egunero miatzen dute, ge-hienetan modu txarrean, eta presoa ere egunero miatzen dute, ziegatik ateratzen denean eta ziegara itzultzean. Presoa eskubiderik gabeko gizakia bihurtzen dela esan liteke, lege bakarra kartzelariaren hitza baita.

Lehen graduak bi fase ditu, lehena eta bigarrena, eta bietan zorrotzena lehen fasea da, sailkapen hau ezarria duten presoa bizi-baldintzak are go-gorragoak baitira oraindik ere. Eta hauxe zen kartzelari ustelen mende-ku zital baten ondorioz Madrletik Galiziara eramandako euskal presoari eman zioten "saria".

Euskal presoak hilabete luzeak eman zituen eremu berezi batean bakar-turik, espetxe horretan zeuden gainerako euskal presoekin ezin baitzuen

harremanik izan. Euskal presoa bakarturik zegoen eta horrek bazka ederra ematen zien kartzelari "zintzo eta jatorrei" behin eta berriz bere aurka egiteko, Euskal presoak Madrilgo lankideei "eginikoa" ezin baitzen bere horretan uzti, eta edozein txikikeria aski zitzaien euskal presoa zigortzeko. Zigorgabetasun osoa zuten eta ez zegoen lekukorik, eta horrexegatik ez zuten euskal presoa zirikatzeko eta bere eskubideak urratzeko parada galtzen, horretan aritzen baitziren gozamen handiz.

Euskal presoak ezin zuen euskaraz hitz egin. Eremu berezi horretan preso gutxi zeuden, baina espainarrak ziren eta haiekin hitz egiteko gazteleraz egin behar zen.

Egunak joan eta egunak etorri, egun batean preso arrunt euskaldun bat agertu zen lehen graduko eremu horretan. Beste espetxe batetik zetorren eta beste espetxe baterako bidean egun batzuk egin beharko zituen hor.

Euskal preso politikoa horretaz konturatu zenean , beste preso euskaldunarekin ziegako leihotik mintzatzen hasi zen, eta egun batzuk horrela eman zituen inoiz patioan elkartzen, baina leihotik hitz egiteko aukera bazuten.

Egun gutxien buruan, espetxeko arduradunek zigorra eman nahi ziotela jakinarazi zioten euskal preso politikoari idazki baten bidez. Hauxe zen zigorraren arrazoia, beste preso batekin euskaraz hitz egiten aritu zela eta zaindariek iraindu zituela kartzelariak putakumeak zirela esan zuelako.

Jakina, hau ez zen egia, euskal preso politikoak ez baiztuen halakorik esan. Eremu berezi horretan ustekabean aurkitutako euskaldun batekin kontu kontari aritu zen, besterik ez.

Galiziako espetxe horretan kartzelariek gazteleraz modu egokian hitz egiteko arazo franko zeuzkaten, trakets asko moldatzen baitziren, baina bapatean eta besterik gabe euskaraz ulertzeko eta egiteko gauza omen zirela ohartu ziren. Eta mirari hau lortzeko ez zuten Fatima edo Lourdesera joan beharrik izan, ez horixe.

Zigorra indarrean sartu aurretik, euskal presoak disziplina baztordearen aurrean ahozko helegitea egiteko aukera zuen, eta horrela egin zuen.

Disziplina batzordea espetxeko arduradunek osatzen dute, besteak beste, zuzendariak, zuzendariordeak, hezitzaile batek, zerbitzuburuak… eta hauek erabaki behar dute presoei ezartzen zaizkien zigorren zuzentasunari buruz, edo hori egin beharko lukete behintzat.

Euskal presoak disziplina batzordean argi eta garbi adierazi zuen beste preso batekin euskaraz hitz egin zuela, besterik ez, ez zuela leporatzen ziotena esan, beraiek ez zekitela euskara eta ezin zutela jakin zertaz aritu ziren solasean.

Hauxe izan zen disziplina batzordearen erantzuna :

- Bai, guk ez dakigu euskara, baina ziurrenik hori esaten arituko zinen.

Eta euskal preso politikoa zigortu egin zuten.

Gorka Lupiañez Mintegi
1980
Durango

2007an atxilotua.

C.P. Curtis (Teixeiro)
Carretera de Paradela s/n
15.310 Curtis
A Coruña
(km. 540 A-6 Salida N-634 Santiago)

Gorka '08

إلى الأمام
يا فلسطين

Itziar Plaza Fernández

Bilbo

2009an atxilotua.

Fleury Merogis Maison d' arrêt femmes 9,
Avenue des Peupliers
91.705 Ste. Genevieve des Bois Cédex
Telf: 0033169723000

Una lucha entre lo natural y lo artificial; en donde la lucha es la supervivencia del ser humano frente a la maquinaria estatal que pretende alienarnos, aliquilándonos como personas.
nuestros caminos se cruzaron en el mundo de la negación y la prohibicion.
Un mundo caótico donde lo irracional impera.
Una realidad que choca con nosotras ya que paradojicamente es ahora cuando más ***libre*** *me siento conmigo misma.*
juntas hemos abierto este puerta y ya es imposible cerrarla.

Después del mitard (zigor ziega)

Bahitutako bat Foville-an

Aitor Agirrebarrena Beldarrain
1997
Lizartza

2002an atxilotua.

C.P. Puerto III
Carretera Jerez-Rota, km. 6
11.500 Puerto de Santa María
Cádiz

Amaia Elkano Garralda

Iruñea

2009an atxilotua.

C.P. Madrid V (Soto del Real)
Carretera Comarcal 611
28.791 Soto del Real
Madrid

Joseba Galarraga Arrona

Deba

1999an atxilotua.

Prisión Provincial Valladolid
Ctra. Adanero - Gijon, km. 94
47.011 Villanubla
Valladolid

“Besterik ez, aberkide maiteok. Preso guzti eta bakoitzari ene irribarre zintzoa eta besarkadarik beroena bidali nahi nizkizueke azken ziegaraino heltzeko asmoz, zuena beti izango den marinel ijito abertzale honen partetik, osasuna eta askatasuna”.

Jon Etxeandia